


eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



Zuzenbide Fakultatea
Facultad de Derecho

Haurdunaldi subrogatua: egungo egoera Espainian

Gradu amaierako lana

Donostiako zuzenbide fakultatean

2016 / 2017 ikasturtea

Egilea: Marina LAKUNZA ELIZARAN

Zuzendaria: Mikel Mari KARRERA EGIALDE

AURKIBIDEA

LABURDURAK.....	3
LABURPENA	4
I. SARRERA: inguruabarrak eta oinarrizko kontzeptuak	5
1. Lanaren zergatia eta nondik norakoak; erabilitako metodologia.....	5
2. Gaur egungo gizartea	6
3. Ugaltze turismoaren fenomenoa	7
4. Herri Ekimen Legegilea.....	9
II. OINARRIZKO IDEIAK	11
1. Haurdunaldi subrogatuaren kontzeptua eta motak.....	11
2. Haurdunaldi subrogatua bideratzeko kontratua	14
3. Terminologiaren nondik norakoak.....	16
III. ERAENTZA JURIDIKOA	19
1. Gaur egungo Espainiako Legeztapena.....	19
1.1 Lege 14/2006, maiatzaren 26koa, Lagundutako Ugalketa Teknikei buruzkoa: 19	
1.2 ENZO-k emandako ebazpen eta instrukzioak: “Kaliforniako kasua”	23
2. Beste herrialdeetako legeztapenaren azterketa eta konparaketa	29
IV. ERLAZIO JURIDIKOAK ETA INTERESAK	33
1. Jaioko den haurraren guraso izan nahi dutenen interesa.....	33
2. Gestatzailearena	36
3. Haurraren interesa eta babesa	38
V. IRITZIAK ETA ARGUDIOAK: ALDE ETA KONTRA.....	42
1. Haurdunaldi subrogatua legezko bihurtzearen alde.....	42
2. Haurdunaldi subrogatua legezko bihurtzearen kontra	44
VI. ONDORIOAK ETA SOLUZIOAREN PLANTEAMENDUA: NIRE IRITZIA	46
BIBLIOGRAFIA	49

LABURDURAK

AEB Amerikako Estatu Batuak

AGA Auzitegi Gorenaren Autoa

AGE Auzitegi Gorenaren Epaia

CENDOJ *Centro de Documentación Judicial*

EK Espainiako Konstituzioa

ENZO Erregistro eta Notaritzako Zuzendaritza Orokorra (DGRN, *Dirección General de Registro y Notariado*)

EZ Erregistro Zibila (RC, *Registro Civil*)

EZL Erregistro Zibileko Legea (LRC, *Ley del Registro Civil*)

KZ Kode Zibila (CC, *Código Civil*)

LUT Lagundutako Ugalketa Teknikak

LUTL Lagundutako Ugalketa Teknikari buruzko Legea (LTRHA, *Ley sobre Técnicas de Reproducción Humana Asistida*)

ROJ *Repertorio Oficial de Jurisprudencia*

ZK Zenbakia

LABURPENA

Lan honen xedea, egungo gizartearen bilakaerarekin bat sortu den haurdunaldi subrogatuaren teknikak, zuzenbidearen arloan eragin duen problematika aztertzea da. Izan ere, azken horrek, pil-pilean dagoen gai bat izanik, legelari, jurista eta aditu ezberdinen iritzi eta argudioei eman die bide. Eta beraz, sortzen den problematikaren aurrean, irtenbide ezberdinak proposatzeari.

Haurdunaldi subrogatua Espainian, legezkotu egin beharko litzateke ala ez?

Espainiako Legediak haurdunaldi subrogatua bideratzeko kontratuak deusez kontsideratzen ditu. Baina, deuseztasun horren aurrean jendeak ugaltze-turismora jo eta gerora, atzerrian jaiotako haurrak Espainian inskribatzeko eskaera egiten du. Hori horrela, deuseztasun hori benetakoa da edo kontrako efektua sortzen duela kontsidera daiteke? Bada, azterketa sakon bat egin ostean, arazo horri irtenbidea ematea du lan honek helburu.

I. SARRERA: inguruabarrak eta oinarrizko kontzeptuak

1. Lanaren zergatia eta nondik norakoak; erabilitako metodologia

Gradu Amaierako Lanerako gaia aukeratzeko ordua iritsi zitzaidanean, pertsona zuzenbidearen barruan, hain alor zabala izanik, gaur egungo gizartean zeresana izaten ari zen gairen bat landu eta aztertu nahi nuen. Horregatik, haurdunaldi subrogatuaren gaia hautatzea, aukera egokia izan zitekeela iruditu zitzaidan. Eta hala, gai horren nondik norakoak eta zuzenbidearen arloan sortzen zuen problematika aztertzeari ekin nion.

Gaiak nire interesa piztu zuen dudarik gabe. Eta horren arrazoia, gizartean duen eragina izan zen. Zehazki, honen inguruan dagoen eztabaidak sortzen dituen iritzi ezberdinak ezagutzeko nahia nuen. Eta, baita iritzi horien atzean zeuden argudioak ezagutzekoa. Izan ere, soziologikoki duen zeresan hori, zuzenbidearen arloan nola plasmitzen zen ezagutzeko jakin-mina nuen.

Sortutako problematika aztertu eta soluzioa bilatzeko beharra ere ikusten nuen, jakina. Eta, gainera, bizi garen gizarteko talde asko barneratzen zituen arazo bat zela iruditzen zitzaidan. Hain zuzen ere, kolektibo ezberdinen interesak jokoan zeudela eta ez zela soilik gizarteko zati bati eragiten zion arazo bat.

Argi dago gizartea bizitzen ari den bilakaerarekin bat, zientzia ere aurrera egiten ari dela. Aurrerapauso handiak eman dira azken urteetan zientziaren arlo ezberdinetan. Eta, jakina da, zientziak aurrera egiten duen arren, herrialde ezberdinetako kulturek edota ohiturek, ez dutela bat egiten zientziak emandako aurrerapausoekin. Bide horretan, zuzenbidea, zientziak emandako berrikuntza horiek legeztatzen saiatzen da: kulturalki edota etikoki berrikuntza hauen onarpena errazteko asmotan. Eta, bide batez, berrikuntza horiek legeztatzearekin, gizartearen segurtasuna ziurtatzeko, nolabait.¹

Laburbilduz beraz, zuzenbidearen arloan eztabaidagai izatez gain, beste arlo askotan ere eztabaidagai izateak, nire aukeraketan garrantzia handia izan du. Eta baita, juristen eta adituen artean, interpretazio ezberdinei bide ematen dien gain bat izateak. Horrek piztu baitu nigan, problematika aztertu eta erantzun bat bilatzeko grina.

Lan honi ekiteko erabili dudak **metodologiak**, hiru adar nagusi izan dituela esan daiteke:

1. Lehenik eta behin, araudia aztertzea.

¹ ROCA TRÍAS (2014: 20).

2. Bigarrenik doktrina, bai legala (jurisprudentzia) eta baita zientifikoa ere (egileen idazkiak) egituratzea.
3. Hirugarrenez eta azkenik, neronek aurrekoen argira ateratako ondorioak isurtzea.

Araudiarekin hasiz, esan beharra daukat, lege, erregelamendu, hitzarmen zein ebazpen eta instrukzio ezberdinak erabilgarri izan zaizkidala nire lanean.

Doktrina legalari dagokionez, jurisprudentzia, Cendoj zein Aranzadi bilatzaileen bidez aztertu dut, gehien bat. Doktrina zientifikoa osatzeko berriz, zuzenbidearen arloan ezagunak diren autore ezberdinek gai honen inguruan idatzitako liburu zein aldizkari juridiko eta bestelako idazkiak aztertu ditut. Horretarako, Espainiako Liburutegi Nazionalean begiratuz eta baita Euskal Herriko Unibertsitateko liburutegietan, jakina.

Horrez gain, gaiaren garrantzia soziologikoa dela eta, internet zein egunkari eta aldizkari ezberdinetan, kazetariak, idazleak, pentsalariak edota soziologoak idatzitako artikulak eta testuak ere izan ditut nire lanean kontuan. Baita, gai honen inguruan dauden web-orriak ere. Nolabait, gizarteak haurdunaldi subrogatuaren inguruan duen iritzia ezagutu ahal izateko.

Azkenik, nire iritzi kritikoak ere txertatu ditut lan honetan, idatzitakoaren inguruan ondorio ezberdinak ateraz eta horrekin batera, soluzioren bat planteatzen saiatuz.

2. Gaur egungo gizartea

Gaur egun bizi garen gizartean, egunerokotasunean dagoen lan erritmoa, egunerokotasunean dagoen estres maila, etab. nahikoa arrazoi dira, garai batean zeuden “familia moldeak” nolabait hausteko. Hain zuzen ere, familien egiturak goitik behera aldatuak izan dira, eta, familiaren kontzeptuak ere, aldaketa nabarmena jasan du. Hau da, gizartea bilakaera etengabea murgildurik dago, abiadura bizian gertatzen delarik gainera².

Bilakaera horren adibide dira, nola ez, familien arloan, ugalketa arazoei konponbidea emateko sortuak izan diren teknika ezberdinak: lagundutako ugalketa teknikak. Zeinak, guraso izateko nahia duten eta ugalketa arazoen ondorioz aukera ez duten pertsonak, haurrak izateko aukera ematen dieten. Honetaz gain, bestelako

² ROCA TRÍAS (2014: 20).

arrazoien ondorioz horrelako tekniken beharra dutenei ere, haurrak izateko aukera ematen diete teknika hauek. Hala nola, bikote homosexuali.

Eskuarki, horretarako dauzkagu LUT ezberdinak. Besteak beste, *in vitro* ernalketa, intseminazio artifiziale edota jarraian sakonkiago aztertuko den haurdunaldi subrogatua. Azken horrek, gainontzekoek ez bezala, polemika handia sortu du azken aldian eta polemika horrek, iritzi ezberdinak egoteari eman dio bide. Esan beharra dagoelarik baita ere, estatu ezberdinen arteko egoera, haurdunaldi subrogatuaren legeztapenari dagokionez, desberdina dela guztiz.

Teknika horrek, gizartean, haurrak izateko aukerak zabaltzeko edota hobetzeko balio duela esaten duenik bada. Eta, baita, “gizarteari” erreferentzia egitean, jende multzo oso txiki bati buruz ari garela uste duenik ere. Azken horien ustez, gizartearen zati handienak, ez baitauka aukeratzeko ahalmenik. Eta, soilik pribilegiadunek aukera dezaketela irizten baitute. Guzti horrek, problematikari irekitzen dizkio ateak. Zeren eta, gizarteari mesede egiten dion teknika bati buruz ari al gara? Edo, gizartearen zati txiki bati mesede egiten dion teknika bati buruz soilik?³

Zalantzarik gabe esan daiteke, gizartea erreboluzio⁴ baten protagonista izaten ari dela. Hala, garai batean familia bat osatzeko aukera bakar ziren eredu biparentaletatik, eredu monoparentalei aukera ematera ere salto eginez. Edota, eredu biparentalen barruan aukera bakarra ziren gizon-emakumeen arteko bikoteez gain, bikote homosexualak ere familia eredu gisa aurreikusiz⁵.

Gainera, bizi garen garai honetan, gizakiaren ugalketa eta sexualitatea ez doaz eskutik lotuta. Edo, egokiago esanda, ez dute zertan lotuta joan beharrik. Izan ere, lan guztian zehar jorratuko den teknikak, bi kontzeptu hauek, bakoitza bere aldetik joateko aukera ematen du. Zehazki, garai batean zegoen sexuaren kontzeptua alde batera utziz nolabait, eredu patriarkalari agur esaten saiatu eta sexua “ugalketarako tresna” gisa bakarrik ikusteaz ahaztuz. Eta alderantziz, sexua, ugalketarako tresna bakar moduan ikusteari utziz eta ugalketarako tresna berriak ezagutuz baita ere.

3. Ugaltze turismoaren fenomeno

Aurrerago araudia aztertzean ikusiko denez, Espainiako legeztapenean haurdunaldi subrogatuaren praktika debekatuta egoteak, ugaltze turismoari eman dio bide. Hain

³“BARBIJAPUTA” izen ezkutuaren azpian mintzo den idazle eta feminista espainiarra (2017).

⁴ LAMM (2013: 17).

⁵ VELA SÁNCHEZ, (2012: 13-14).

zuzen ere, ekonomikoki ahalmena dutenek, atzerrira jotzen baitute, teknika hau praktikatzera. Haurdunaldi subrogatuaren praktika legezkoa den estatuetara, alegia.⁶ Bertan haurrak izan eta gero, Espainiako Erregistro Zibilean inskripzioa egitea eskatuz.

Ugaltze turismoa, honela defini daiteke: “gizabanako batek edo bikote batek gauzaturiko lekualdatzea, bere jatorrizko estatutik atzerriko beste estatu batera, Lagundutako Ugalketa Teknikak erabili ahal izateko”.⁷

Terminologiari dagokionez, “turismo” hitza erabiltzea, globalizazioaren ondorio da, dudarik gabe. Hain zuzen ere, turismoari erreferentzia egitean, industriari erreferentzia egiten ari baikara, nolabait.⁸

Fenomeno edo teknika honetara jotzeko arrazoiak, ezberdinak izan daitezke. Besteak beste, legez kontrakoa den estatuetatik, legezkoa den estatuetara joatearena; praktika honen prezio merkeena aprobetxatzearena; edota, praktika honen baldintza hoberenak bilatzen saiatzearena,⁹ teknika honen erabiltzaile askoren esanetan, euren jatorrizko estatuetan debekatuta egoteak, aukera bakarra atzerrira jotzea aukera bakarra suertatzen da.

Aitzitik, horrelako turismoa existitzeak kezka sortzen duela edo sortu beharko lukeela irizten dut nik. Hain zuzen ere, Espainiako Konstituzioak, 14. artikuluan aurreikusten duen “berdintasun printzipioaren” haustura argia antzeman baitaiteke. Izan ere, ugaltze turismoa, gizartearen zati txiki batek erabil dezakeen teknika bat dela, argi dago. Hain zuzen ere, atzerrira joateko eta horrelako teknika batengatik ordaindu behar dena ordaindu ahal izateko aukera edo ahalmen ekonomikoa duen gizartearen zatiak. Guzti horrek, desoreka handiak sortzen ditu gizartean. Edota, jada dauden desorekak nabarmendu.

Konparaketa bat egite aldera, egun puri-purian dagoen fenomeno hau, garai bateko abortuaren egoerarekin alderatzea otu zait. Izan ere, haurdunaldi subrogatuarekin gertatzen den bezalaxe, urte batzuk atzera, Espainian legezkoa ez izanagatik, edota baldintza murriztaile batzuen pean legezko izanagatik, abortua praktikatzera ere, atzerrira jo behar izaten zuten emakume espainiarrek. Horren arrazoia, honakoa zen: legediak ez zituela ezarritako kausa guztiak jasotzen. Eta, jasotzen zituenak, ez zeudela

⁶ MARINERO idazlearen iritzia (2016): “*Cada año, se dan entre 800 y 1.000 casos de gestación subrogada en la que se ven implicados ciudadanos españoles. Familias con problemas de fertilidad (o imposibilidad de tener descendencia en el caso de las parejas gays y de los solteros) contratan a agencias que les facilitan las gestiones para viajar a países como EEUU, Ucrania, Rusia o Canadá.*”

⁷ www.babygest.es/turismo-reproductivo

⁸ LAMM (2013: 193).

⁹ www.babygest.es/turismo-reproductivo

modu argi batean azalduta. Legedian aurreikusita zegoen guztia anbiguotasunean erortzen zela, alegia.

Ugaltze turismora itzuliz, orain arte azaldutako guztia gutxi balitz, fenomeno hau behar gehien duten emakumeengandik probetxua ateratzeko modu bat dela ere uste dut. Egoera prekarioenetan dauden pertsonen eskutik, kaudimen ekonomiko sendoa duten pertsonak, euren helburua lortzeko erabiltzen dutena. Sarritan gainera, emakume horiei eskaintzen zaizkien baldintzak, ez dira egokiak izaten. Eta horrek, zalantzan jartzen du eskaintzen zaien segurtasunaren egokitasuna. Askotan, emakumeen eta haurren osasuna jokoan jartzen delarik.

Aurrez esan denez, herrialde bakoitzean, haurdunaldi subrogatuari buruzko legeztapenaren egoera, ezberdina da. Eta herrialde bakoitzeko egoera gertuagotik ezagutzeko asmotan, lan honetan, konparaketa bat egingo da aurrerago.

4. Herri Ekimen Legegilea

Espainiako Konstituzioko 87.3. artikulua aurreikusten duenari jarraiki, Espainiako hiritarrek, hautesle-eroldan inskribatuak dauden heinean, Herri Ekimen Legegilea erabili dezakete. Beti ere, Herri Ekimen Legegileei buruzko 3/1984 Lege Organikoan arautzen denari jarraiki.

Herri Ekimen Legegile batek bete beharreko baldintzen artean, esanguratsuen edo funtsezkoena, beharrezkoak diren sinadurena da. Eskuarki, herri ekimen legegile batek indarra izan dezan, 500.000 sinadura behar baitira.¹⁰

Haurdunaldi subrogatuaren praktika onartzen duen legerik ez dagoen arren, kontuan izan behar da Herri Ekimen Legegile bat dagoela, berau arautzeko lege proposamen bat egiten duena.¹¹ Eta, honek, honako azpiatal hauek arautzen ditu, besteak beste: legearen helburua eta aplikazioa, teknikaren aplikazioaren baldintza pertsonalak, haurdun dagoen emakumeari buruzko nondik norakoak, ordezkoko gurasoen nondik norakoak, haurdun dagoen emakumearen erditzea eta enbrioien transferentzia, haurdunaldi subrogatuaren kontratua, haurdunaldi subrogatuaren bidez jaiotako haurren filiazioa edota filiazioaren legezkotasuna.

Herri Ekimen Legegile hau, “Gestación Subrogada en España” elkarteak bultzatzen du. Zehazki, elkarte hau baita, berau egiteko ideia izan duena eta baita testua gauzatu duena zein prozesu guztia aurrera eramateaz arduratzen ari dena.

¹⁰ MARCO MARCO (2008).

¹¹ www.gestacionsubrogadaenespaña.es/index.php/2013-10-16-13-08-07/texto-ilp

Argi dago, Herri Ekimen Legegilea elkarte honek egin duen heinean, elkarteak defendatzen dituen interesen aldekoa dela. Eskuarki, haurdunaldi subrogatua Espainian legeztatzearen aldekoa.¹² Honen oinarri gisa, haurdunaldi subrogatua legeztatzearekin, prozesuan parte hartzen duten pertsonen eskubideak ziurtatzen direla adieraziz. Eta bereziki, teknika honen bitartez jaiotako adingabeenak.

Erabiltzen diren argudioak bi dira (aurrerago ere azalduko direnez):

1. Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua ematen dela diote. Hain zuzen ere, Espainian legeztatuta ez egoteagatik, haurdunaldi subrogatura jo behar duten zenbait gizabanakok, atzerrira jotzen baitute, zenbait herrialdeetan praktika hau onartua dagoelako (goran azalduko ugaltze turismoa).¹³ Eta, horrek, desoreka handiak sortzen ditu. Eskuarki, ekonomikoki praktika hau gauzatzera atzerrira joan daitezkeen eta joateko ezintasun ekonomikoak dituzten artean ezberdintasunak sortzen baititu. Esan denez, honi jarraiki, Espainiako Konstituzioko 14. artikuluan¹⁴ barnebiltzen den berdintasun eskubidea hautsiz.
2. Honetaz gain, herri ekimen legegilearen bultzatzaileek, haurdunaldi subrogatua legeztatuta ez egotea, Espainiako Konstituzioko 39. artikulua baitan ziurtatzen den “familiarren babesaren” aurka joatea dela esaten dute baita ere. Izan ere, familia berriak sortzeari bide ematen dion teknika hau legeztatuta ez egoteak, familiarren arloan ez eboluzionatzeari ematen dio bide eta beraz, babes hori zalantzan jartzeari.

¹² www.gestacionsubrogadaenespaña.es/index.php/2013-10-16-16-02-18/la-comision

¹³ www.gestacionsubrogadaenespaña.es/index.php/2013-10-16-13-08-07/texto-ilp. II. arrazoia.

¹⁴ Espainiako Konstituzioak 14. artikuluan honela dio: *“Los españoles son iguales ante la ley, sin que pueda prevalecer discriminación alguna por razón de nacimiento, raza, sexo, religión, opinión o cualquier otra condición o circunstancia personal o social.”*

II. OINARRIZKO IDEIAK

1. Haurdunaldi subrogatuaren kontzeptua eta motak

Haurdunaldi subrogatuaren kontzeptuari dagokionez, esan beharra dago, bilakaera bat jasan duela. Zeina, urtetik urtera gizarteak izan duen aldaketaren isla izan den. Hain zuzen ere, haurdunaldi subrogatuaren lehenengo definizioa eman zenetik, gaur egun ematen den definiziora dagoen aldaketa, bai gizarteak eta baita zuzenbideak ere alor honetan izan duen aldaketa edota bilakaeraren ondorio baita.

Hasteko, Espainiako legegariak emandako definizioa daukagu. Zeina, Lagundutako Ugaltze Teknikei buruzko maiatzak 26ko 2006/14 Legeko 10.1. artikuluan adierazten den: *“el contrato por el que se convenga la gestación con o sin precio, a cargo de una mujer que renuncia a la filiación materna a favor del contratante o de un tercero.”*

Jarraitzeko, jurisprudentziak ere bide beretik jotzen duela esan daiteke. Honela definitzen duelarik haurdunaldi subrogatua, doktrinak onartutako 2011ko azaroaren 23ko Valentziako Entzutegi Probintzialeko 949/2011 epaiak: *“llamada gestación por sustitución, que consiste en un contrato, oneroso o gratuito, a través del cual una mujer consiente en llevar a cabo la gestación, mediante técnicas de reproducción asistida, aportando o no también su óvulo, con el compromiso de entregar el nacido a los comitentes, que pueden ser una persona o una pareja, casada entre si o no, que a su vez pueden aportar o no sus gametos.”*¹⁵

Egungo definizioan zentratzen bagara aldiz, haurdunaldi subrogatua VELA SÁNCHEZ irakasleak (2012: 13) honela definitzen duela esan daiteke: haurdunaldi subrogatua, lagundutako giza ugalketaren barruan dagoen tekniketako bat da, zeinaren bitartez, emakume batek, haur bat sabelean hazteko konpromisoa hartzen duen, kontraprestazioa izanik edo izan gabe; honen bitartez, beste pertsona bat edo pertsona batzuk guraso biologiko izan daitezten, edo ez. Teknika honetan, emakumeak, bere gorputzaren barruan enbrioi bat darama, jaiotzen den arte, beste emakume, gizon edota izatezko bikote edo ezkontide homosexual zein heterosexual baten onurarako.

Definizio hauen harira, gizarteak izan duen bilakaera nabaria dela ondorioztatu daiteke. Argi geratzen delarik, emakume batek bakarrik, amatasunerako eskubidea duela. Eta, baita gizon batek bakarrik, aitasunerakoa ere. Edota, emakumeen artean

¹⁵ Valentziako APE 2011.11.23 (ROJ APE 5738/2011).

zein gizonen artean osatutako bikote homosexualak baita ere. Eta, guzti honen funtsa, printzipio hauetan kokatzen da:¹⁶

1. “Bizitza familian egitekoa eta familia bat osatzekoa”: printzipio honen harira, gizabanako orok bizitza familia bati loturik egin ahal izatea aurreikusten da. Hau da, familia-nukleo bat osatu eta honi elkartuta bizitzeko aukera izatea.
2. “Diskriminazioaren debekua”¹⁷: printzipio honi jarraiki, eskubide zein askatasun oro, gizabanako guztientzat berdina izango da. Eta, beraz, ezingo da bereizketarik egin sexu, arraza, kolore, erlijio edota pentsaera, hizkuntza eta abarreatatik.
3. “Familia bizitzaren errespetua”: “bizitza familian egitearen” printzipioari loturik, berau errespetatzeko betebeharra adierazten du beste honek. Eskubide hau hausteko ezer egiteko debekua eta eskubide hau zaintzeko obligazioa, alegia.
4. “Legearen aurreko berdintasuna”: “diskriminazioaren debekuarekin” batera, gizabanako oro legearen aurrean berdina dela adierazten du printzipio honek. Pribilegioak ez direla onartzen, alegia.

Aurreratu denez, kontzeptu honek, **aro ezberdinetatik** igaro beharra izan du. Beraz, bide luzea du atzetik. Eta, honako definizio hauek dira horren isla:

1. 1982.urtean, ezaguna egin zen lehen definizioetako bat eman zuen COLEMAN (1982: 75) fisiko britainiarrek: haurdunaldi subrogatua, intseminazio artifizialaren aplikazio berri bat da, zeinaren bitartez, haur bat jaiotzen den, ugalkorra ez den bikoteari biologikoki lotuta.

Haurdun dagoen emakumea, ugalkorra izango da eta kontratu baten bitartez, beste emakume batekin ezkondata dagoen gizon baten semenarekin intseminatua izango da.

Haurra jaiotzen denean, haurdunaldia aurrera eraman duen emakumeak, zaintzari ezezkoa emango dio, aita biologikoaren alde eta gainera, filiazioari begira duen eskubide ororen amaiera emango da, intseminatu duen gizon horren emaztearen alde, azken honek, jaio den haurra adoptatu dezan.

¹⁶ Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna (Carta de los Derechos Fundamentales de la Unión Europea, 2010. *BOE* 83. zk., 2010eko martxoaren 30ekoa).

¹⁷ Giza eskubideen Europako Hitzarmena (Convenio Europeo de Derechos Humanos, 1979. *BOE* 243. zk., 1979ko urriaren 10ekoa).

Definizio honek jasotakoa, COLEMAN jaunak, garai hartako gizartean oinarrituta egin zuela, nabari da.

2. Garai hartan gutxi gora behera, hiru urte beranduago eskuarki, WARNOCK (1985) jaunak, honako definizio hau eman zuen: haurdunaldi subrogatuaren teknikaren bitartez, emakume batek bere sabelean umeki bat hazten du, beste emakume batentzat, jaiotzen denean azken honi emateko asmoz.

Egun, nabari da, definizioak gaur egungo gizartera eta garaira egokitzen joan direla.

Kontzeptuak, aurrez azaldu denez, aro ezberdinetatik igaro beharra izan du. Eta, honetaz gain, **aspektu ezberdinei garrantzia** eman die, definizio ezberdinak sortuz. Hala nola, haurdunaldi subrogatuaren harira sortutako kontratua nabarmentzen duten definizioak daude, edota gizartearen bilakaera nabarmendu nahi izan dutenak.

Kontratua nabarmentzen duen definizioa dugu, bada, JIMÉNEZ MUÑOZ (2014 : 40) irakasleak emandako hau: *“Se trataría del supuesto por el que una pareja comitente (también denominados padres intencionales), que por cualquier motivo no puede o desea tener un hijo por sí misma, realiza un contrato con una madre sustituta o portadora (o madre subrogada), a fin de que, previa inseminación de ésta, dé a luz el niño deseado, entregándose a aquellos y siendo considerado el hijo de tal pareja.”*

Kontzeptuaren nondik norakoak alde batera utziz, **haurdunaldi subrogatu motak** aztertuko dira jarraian. Hauen artean, nahiz eta sailkapen gehiago egin diren, sailkapen orokorraren arabera, bi mota ezberdin bereiz daitezke¹⁸:

- a) Tradiziozko haurdunaldi subrogatua: normalean, intseminazio artifizialaren bitartez egiten da. Eskuarki, jaioko den haurra sabelean eramaten duen emakumea da kasu honetan obulua ematen duena baita ere. Hau da, haurdunaldia aurrera eramango duen emakumearen obulua, kontratua burutzen duen bikoteko subjektuetako baten edo beste edozein subjekturen espermarekin (bikoterik gabe kontratua sinatu duena izan daiteke edota edozein hirugarren) intseminatua izango da. Kasu honetan, haurra, intseminazio artifizialaren bitartez edo *“in vitro”* teknikaren bitartez sortua izango da.

¹⁸ VILAR GONZÁLEZ (2014: 901-902).

- b) Haurdunaldi subrogatu partziala: kasu honetan, haurdunaldia aurrera eramango duen emakumeak, soilik egiteko hori izango du. Hau da, jaiotzeke dagoen haurra sabelean eramango du. Baina, haur hori sortzeko erabili den obulua ez da berea izango. Artifizialki intseminatua izango da, berea ez den obulu batekin. Obulu hori, kontratua sinatzen duen familiarik etor daiteke edo dohaintza anonimo baten bitartez lortutakoa izan daiteke¹⁹. Kasu honetan beraz, “*in vitro*” teknika erabiltzen da.

2. Haurdunaldi subrogatua bideratzeko kontratua

Haurdunaldi subrogatua, legezkoa den eta praktikatzen den estatuetan, kontratu baten bitartez gauzatzen da. Ondorioz beraz, kontratu hau, herrialde ezberdinetan aurkitu daiteke, modu ezberdinean araututa. Baina, modu orokor batean, haurdunaldi subrogatuaren kontratua, akordio bat dela esan daiteke, zeina guraso izango direnek eta emakume gestatzaileak sinatzen duten, idatzizko dokumentu batean. Akordio honen bitartez, emakume gestatzaileak, haurdun gelditzea onartzen du, aukera ezberdinen bitartez (goran azalduak izan direnak). Gerora, haurra jaiotzen denean, kontratua sinatu duen beste aldeari (guraso izango den alderdiari) emango diolarik haurra. Horretarako, legeak haur horrekiko ematen dizkion eskubide guztiak alde batera utzi beharko ditu emakume gestatzaileak. Hau da, eskubide horiei uko egin beharko die.

Haurdunaldi subrogatuaren kontratuen artean, bi mota ezberdin daudela esan daiteke:

1. Kontratu altruista: kontratu mota honetan, haurdunaldia aurrera eraman duen emakumeak, ez du inongo kontraprestaziorik jasoko trukean. Edota, kontraprestazioa jasotzen badu, haurdunaldiak sorturiko gastuak ordaintzeko izango da, soilik.
2. Kontratu komertziala: kontratu mota honetan aldiz, haurdunaldia aurrera eraman duen emakumeak, bere obligazioa betetzeagatik (kontratuan hitzartu dena) kontraprestazioren bat jasoko du trukean. Kontraprestazioa dirutan izan daiteke edota beste moduren batean. Adibidez, zerbitzuren bat edota objekturen bat eman daiteke trukean.

¹⁹ www.babygest.es/tipos-de-subrogacion

Kontratu bat den heinean, berau onartuta badago behintzat, kontratuan parte hartzen duten alderdientzat honako obligazio hauek sortzen dira:

1. **Emakume gestatzaileak**, intseminazioa aurrera eramaten utzi behar du, lehenik eta behin. Bigarrenik, haurdunaldia era egoki batean gauzatzeko bere eskutan dagoen guztia egin behar du. Hirugarrenez eta azkenik, haurra jaiotzen denean, berekiko dauzkan eskubideak ukatu beharko ditu, alde batera utziz.
2. **Kontratua sinatu duen beste alderdiak** aldiz, haurdunaldiak sorturiko gastu guztiak ordaindu beharko ditu, hasteko. Bai osasun gastuak eta baita gastu legalak ere. Jarraitzeko, haurra jaiotzen denean, honen zaintza eskubidea hartu beharko du eta behar bezala bete. Honetaz gain, gainera, kasu gehienetan behintzat, haurdunaldia aurrera eraman duen emakumeari kontraprestazio bat eman beharko dio trukean.²⁰ Hala ere, azaldutakoari jarraiki, trukean kontraprestaziorik egon gabe ere egin daiteke.

Espainiako egoera aztertzekotan, esan beharra dago haurdunaldi subrogatua legeztatzen duen LUTL 10.1. artikulua, kontratu hau deuseza dela adierazten duela. Honela baitio artikulua: *“Será nulo de pleno derecho el contrato por el que se convenga la gestación, con o sin precio, a cargo de una mujer que renuncia a la filiación materna a favor del contratante o de un tercero.”*

Artikulu honi jarraiki, haurdunaldi subrogatua aurrera eramateko egiten den kontratu oro, deuseza izango da, Espainian (geroago gauzatu da Espainiako legeztapenaren azterketa sakonago bat). Honen oinarri gisa, aipatu berri den artikulua egongo delarik. Eta, horretaz gain, beharrezkoa da, Kode Zibilean agertzen diren kontratuen baliozkotasunerako oinarrizko betekizunak aztertzea.

Hain zuzen ere, honela baitio Kode Zibileko 1255. artikulua: *“Los contratantes pueden establecer los pactos, cláusulas y condiciones que tengan por conveniente, siempre que no sean contrarios a las leyes, a la moral, ni al orden público.”*

Honetaz gain, 1261. Artikulua, honela dio: *“No hay contrato sino cuando concurren los requisitos siguientes: 1.º Consentimiento de los contratantes. 2.º Objeto cierto que sea materia del contrato. 3.º Causa de la obligación que se establezca”*.

²⁰ RODRÍGUEZ-YONG eta MARTÍNEZ-MUÑOZ (2012 : 64-65).

Ildo beretik, ezinbestekoa da, Kode Zibileko 1275. artikulua dioena erreparatzea: *“Los contratos sin causa, o con causa ilícita, no producen efecto alguno. Es ilícita la causa cuando se opone a las leyes o a la moral.”*

Horri jarraiki, haurdunaldi subrogatuaren kontratuan, kausa ez zilegia dela kontsidera daiteke. Zeren eta, zilegia izan dadin, kausa, legearekin eta moralarekin bat etortzea beharrezkoa da. Eta, kasu honetan, ez da hala. Beraz, kausa ez zilegia duten kontratuak efekturik gabeak direla kontuan hartuz, kontratua existitu ahal izateko funtsezko betekizun bat falta dela esan daiteke.

Ildo beretik eta haurdunaldi subrogatuaren kontratuaren nondik norakoekin amaitzeko, esan beharra dago, berau, ez dagoela Kode Zibilean barnebiltzen diren kontratu moten artean legeztatuta. Ez daukala legeztapen konkreturik, alegia. Eta, horrek, autoreek iritzi ezberdinak izatera ematen duela bide.

Autoreen artean, bada haurdunaldi subrogatuaren kontratua, bere osotasunean, Kode Zibilean jaso beharko litzatekeela usten duenik. Hau da, autore batzuek, haurdunaldi subrogatua legeztatzeko, kontratu mota berri bat aurreikusi beharko litzatekeela irizten dute. Hain zuzen ere, autore hauek, ez baitiote haurdunaldi subrogatuaren kontratuari, egun Kode Zibilak barneratzen dituen kontratuetakoa batekin ere antzekotasunik hartzen.

Aldiz, beste autore batzuek, haurdunaldi subrogatuaren kontratua, Kode Zibileko 1544. artikuluan barnebiltzen den obra edo zerbitzuen errentamendu kontratuekin alderatu daitekeela uste dute. Zehazki, haurdunaldi subrogatua, zerbitzu errentamendu bat dela. Finean, zerbitzu errentamendu kontratuetan bezalaxe, haurdunaldi subrogatuaren kasuan ere, emakumeak, zerbitzu bat eskaintzen baitu autore hauen ustez (haurra sabelean eramatearen zerbitzua). Askotan, ez beti, prezio baten truke²¹.

3. Terminologiaren nondik norakoak

Orain arte, “haurdunaldi subrogatu” terminoarekin izendatu den eta lan guztian zehar izendatuko den horrek, gure gizartean, izen bat baino gehiago du. Besteak beste, honelako izenak ere erabiltzen baitira, LUT hau izendatzeko: amatasun subrogatua, umetokiaren alokairua, ordezkoko amatasuna, ama garraiatzailea, sabel alokairua, umetokiaren aldi baterako dohaintza, alokairuko amatasuna, etab.

²¹ VILAR GONZÁLEZ (2014: 901).

Ikus daitekeen moduan, Espainian, terminologia aldetik ez dago inongo batasunik. Hain zuzen ere, autoreek ere iritzi ezberdinak baitituzte terminologiaren egokitasunaren inguruan. Eta gainera, terminologiaren batera ezintasunaren arazo hau, ez da bakarrik Espainian ematen; eskuarki, estatu gehienetan ematen baita.

Termino aniztasun honen atzean ordea, terminoetatik haratago doan eztabaida bat dagoela ikus daiteke. Zeren eta, aipatutako terminoetako asko, edo gehienak, gutxiesgarriak direla, argi dago. Hain zuzen ere, umetoki bat, alokatu al daiteke? Edota, amak haurra bere uteroaren barnean daramanean, garraiatzen ari al da? Sabela, alokatzea posible al da? Eta, amaren umetokia dohaintzan eman al daiteke?

Gutxiesgarritasuna argia da guztiz²². Eta gainera, emakumea zein jaiotzeke dagoen haurra merkantilizatzaera jotzen da etengabe. Zeren eta, emakume bat ezin da alokatu. Eta, bere uteroa ezta ere. Jakina, jaiotzeke dagoen umekia alokatzea ere, ezinezkoa delarik. Honetaz gain, esan beharra dago, termino hauek, emakumea, bere uteroa eta umekia “gauza bihurtze aldera” jotzen dutela²³. Eta, hori saiheste aldera, Espainiako legedian, “haurdunaldi subrogatuaren” terminoa erabiltzen da.

Aitzitik, haurdunaldi subrogatuaren terminoa estalki hutsa dela irizten dutenak ere badaude. Hain zuzen ere, termino horrek, inklusibitatearen aitzakia erabiliz, errealitatea ezkututzen duela uste baitute.

Guzti hau gutxi balitz, terminologiaren eztabaidan sartzen da baita ere “amatasun” kontzeptuaren nondik norakoa. Hain zuzen ere, nahiko konplexutzat hartzen den kontzeptu batez ari garela esan baitaiteke. Zeinak, batzuen ustez behintzat, ugalketaren ondorioz, haurra izateko helburuaz gain, beste milaka gauza barneratzen dituela esan daitekeen. Eskuarki, ama izateak, ugalketa helburu hori betetzeaz gain, beste zenbait helburu garrantzitsu baititu, pertsona batzuen ustez. Zeren eta, amatasuna, ugalketaren unetik hasi eta erditzen den pertsona horren bizi osoan zehar irauten duen “prozesu natural” edo “bizitzeko egoera” bat bezala hartzen duenik badago. Emakume horrek, bizi guztirako lortzen edo eskuratzen duen “titulu” edo “ardura” bat bezala, alegia.

Bada ordea, kontrakoa pentsatzen duenik ere. Hain zuzen ere, “amatasunaren” terminoa egokia baita zenbait autoreren ustez. Hau defendatzeko, honako azalpen hau ematen dutelarik: haurdunaldi subrogatua ematen den momentuan, amatasuna,

²² TORRICO komunikatzailearen iritzia (2016).

²³ GALÁN idazlearen iritzia (2016).

subrogatu daitekeela. Hau da, amatasunaren kontzeptua, “zatitu” egiten dela nolabait, erdituko duen ama baitago alde batetik, eta gerora “ordezkatuko” duen ama, bestetik.

Argi geratu da, terminoaren atzean, terminoa bera baina haratago doan eztabaida bat dagoela. Eta, honekin batera, terminoa atzetik dauden pertsonen interesak daudela. Zeren eta, argi dago, beste zenbait arlotan bezala, arlo honetan ere, pertsonen interesen arabera, terminologia aldatu egiten dela. Adibide argi bat jartzearren: ez da berdina izango eliza katolikoko kide batek erabiliko duen terminoa edota haurdunaldi subrogatuaren alde dagoen pertsona batek erabiliko duena. Hau da, pertsona bakoitzak gai honekiko daukan iritzia edo posizioa, erabakigarria da guztiz terminologiari begira.

III. ERAENTZA JURIDIKOA

1. Gaur egungo Espainiako Legezapena

1.1 Lege 14/2006, maiatzaren 26koa, Lagundutako Ugalketa Teknikeri buruzkoa:

Espainian, aurrez aipatuenez, haurdunaldi subrogatua, Lagundutako Ugaltze Teknikeri buruzko maiatzaren 26ko 14/2006 Legean legeztatzen da. Zehazki, 10. artikuluan. Honela dio artikulua:

“1. Será nulo de pleno derecho el contrato por el que se convenga la gestación, con o sin precio, a cargo de una mujer que renuncia a la filiación materna a favor del contratante o de un tercero.

2. La filiación de los hijos nacidos por gestación de sustitución será determinada por el parto.

3. Queda a salvo la posible acción de reclamación de la paternidad respecto del padre biológico, conforme a las reglas generales.”

Artikulu honen azterketa eginez gero, lehenik eta behin, argi dago, Espainian, haurdunaldi subrogatuari buruzko kontratuak, deusezak direla. Eta, debeku horrek, “*erga omnes*” dituela efektuak. Debeku hau hiritar guztientzako dela aplikagarri, alegia. Gainera, argi ikus daiteke, artikulua ez dituela haurdunaldi subrogatuaren barruan dauden suposizio guztiak barnebiltzen.²⁴

Zenbait autorek diotenari jarraiki, haurdunaldi subrogatuaren kontra egiteko dagoen joera horrek, orokorrean lagundutako ugalketarako tekniketik dagoen kontrako jarrerari jartzen dio aurpegia.²⁵ Dirudenez, gaur egun arlo honetan egin diren berrikuntza guztiekiko dagoen aurkakotasuna, haurdunaldi subrogatuan zentratzen baita.

Artikuluaren nondik norakoak sakonki aztertu ahal izateko, azpiatalak banaka aztertzea da egokiena:

Lehenengo azpiatalari dagokionez, haurdunaldi subrogatuaren kontratua deuseza izango dela jasotzen du. Baina, nahiz eta lege honi jarraiki kontratua deuseza den, kontratu horren baliogabetzea dakarten beste zenbait arrazoi ere

²⁴ GARCÍA PÉREZ (2007: 373).

²⁵ GARCÍA PÉREZ (2007: 372).

badaude. Hau da, KZ kontuan izanez gero, haurdunaldi subrogatuaren kontratua baliogabetu daiteke, aurrerago sakonkiago aztertuko den moduan.

Azpiatal honen helburua argia da. Hain zuzen ere, horrelako kontratuen deuseztasunaren bidez, horrelako akordioak ez egitea lortu nahi baita. Argi dago azpiatal honetan esaten denari jarraiki, kontratua deuseza den heinean, ez dagoela kontratu honetatik ondoriozta daitekeen loturarik eta ondorioz ez dagoela obligaziorik ezta eskubiderik ere. Hori horrela, haurdun dagoen emakumeak, ez dauka inongo obligaziorik akordioa burutu duen beste alderdiarekiko.²⁶ Hain zuzen ere, hori da “juridikoki deuseza” izatearen esanahia: kontratu hori eta horren nondik norakoak ezin direla auzitegien aurrean alegatu, alegia.

Bigarren azpiatalean, zuzenbide erromatarreko “*mater semper certa est*” printzipioa²⁷ gailentzen dela ikus daiteke. Hain zuzen ere, printzipio horrek, haurraren filiazioa, erditu duen emakumearekin lotzen baitu, zuzen zuzenean. Zehazki, printzipio honen arabera, haurdunaldia aurrera eraman duen eta erditu duen emakumea, jaio den haurraren ama izango baita, efektu juridiko guztietarako.

Hirugarren azpiatalak, ordea, orain arte azaldutako “guztizko deuseztasun” hori, zalantzan jartzen du. Hain zuzen ere, azpiatal horrek dioenari jarraiki, komisio-emaile batek (jaioko den haurraren guraso izango denak, alegia), bere material genetikoa eman duen heinean, aitatasuna erreklama dezake.

Honen harira, erreklamatzeko aukera horrek “ateak zabaltzen” dituela esan daiteke, nolabait. Izan ere, azpiatalak ez du aitatasuna automatikoki lortzeko aukera ematen. Baizik eta, erreklamazioari buruzko arauak aplikatuz, aitatasun hori eskuratzeko bidean aurrera egiteko aukera ematen du.

Lehenengo azpiatalean aurreratu denez, haurdunaldi subrogatuaren deuseztasunaren oinarri bakarra, ez da LUT-i buruzko legea. Are gehiago, autore askoren esanetan, legeko 10. artikulua existituko ez balitz ere, haurdunaldi subrogatuaren praktika Espainian, legez kontrakoa izango litzateke. Horren oinarri edota arrazoi dira²⁸:

²⁶ LAMM (2013: 71-72).

²⁷ GONZALES PÉREZ DE CASTRO (2013: 329) .

²⁸ BAYARRI MARTÍ abokatuaren iritziaren harira ateratako konklusioa (2015): Jarraian aztertuko diren arrazoiak, gehien bat KZ-ean eta EK-an zein zuzenbidearen printzipioetan oinarritzen diren arren. Zuzenbideko graduan egonik, Kode Penalaren legeztapenari buruzko aipamen bat egitea ez dator gaizki. Ildo horretan, esan beharra dago, Espainiako Kode Penalean, “haurdunaldi subrogatua” bere horretan, ez dagoela delitu gisa aurreikusita. Baina, badaude gai honekiko lotura zuzena duten bi artikulua. Zehazki, 220 eta 221. artikulua.

1. Kode Zibileko artikulua hauek, besteak beste:

- a) 1255. artikulua: *“Los contratantes pueden establecer los pactos, cláusulas y condiciones que tengan por conveniente, siempre que no sean contrarios a las leyes, a la moral, ni al orden público.”*
Artikulu honi jarraiki, kontratu batean, legearen edota moral eta ordena publikoaren aurkako betekizun edota klausulak ezartzea, debekatuta dagoela adierazten da. Hori hala izanik, kontratu hau ezin daitekeelarik burutu.
- b) 1275. artikulua: *“Los contratos sin causa, o con causa ilícita, no producen efecto alguno. Es ilícita la causa cuando se opone a las leyes o a la moral.”* Artikulu honekin bat, kausa ez zilegia den heinean kontratua baliogabetzen da. Beraz, kasu honetan, argi ikus daiteke, LUTL-an haurdunaldi subrogatua bideratzeko kontratua onartuta egongo balitz ere, kausa legearen eta moralaren aurkakoa izanagatik, kontratu hau burutzea ezinezkoa izango litzatekeela.
- c) 1261.2. artikulua: *“No hay contrato sino cuando concurren los requisitos siguientes: 2. Objeto cierto que sea materia del contrato.”* Honi jarraiki ere, argi ikusten da, LUTL-an haurdunaldi subrogatua bideratzeko kontratua onartuta egonda ere, ezingo litzatekeela burutu, kontratu bat burutzeko funtsezko baldintza bat falta delako: objektu zehatza. Ildo berean mintzo da hurrengo artikulua.
- d) 1271. artikulua: *“Pueden ser objeto de contrato todas las cosas que no están fuera del comercio de los hombres, aun las futuras.”*

Honela mintzo dira artikulua hauek, hurrenez hurren:

- 220. artikulua: *“1. La suposición de un parto será castigada con las penas de prisión de seis meses a dos años; 2. La misma pena se impondrá al que ocultare o entregare a terceros un hijo para alterar o modificar su filiación; 3. La sustitución de un niño por otro será castigada con las penas de prisión de uno a cinco años. (...)”*
- 221. artikulua: *“1. Los que, mediando compensación económica, entreguen a otra persona un hijo, descendiente o cualquier menor aunque no concorra relación de filiación o parentesco, eludiendo los procedimientos legales de la guarda, acogimiento o adopción, con la finalidad de establecer una relación análoga a la de filiación, serán castigados con las penas de prisión de uno a cinco años y de inhabilitación especial para el ejercicio del derecho de la patria potestad, tutela, curatela o guarda por tiempo de cuatro a 10 años; 2. Con la misma pena serán castigados la persona que lo reciba y el intermediario, aunque la entrega del menor se hubiese efectuado en país extranjero.(...)”*

Sobre la herencia futura no se podrá, sin embargo, celebrar otros contratos que aquellos cuyo objeto sea practicar entre vivos la división de un caudal y otras disposiciones particionales, conforme a lo dispuesto en el artículo 1056. Pueden ser igualmente objeto de contrato todos los servicios que no sean contrarios a las leyes o a las buenas costumbres.” Haurdunaldi subrogatua bideratzeko kontratu batean, objektua merkataritzatik kanpo dagoela kontsideratzen da, legearen eta moralaren aurkakoa den heinean.

Laburbilduz beraz, argi esan daiteke, horrelako kontratu baten kausa, ez dela zilegia. Objektua, legearen kontrako zerbitzu bat izanagatik, komertzioatik at dagoela. Eta ondorioz, legearen, moralaren eta ordena publikoaren aurkakoa dela.

Ildo honetan, Valentziako Entzutegi Probintzialeko 2011eko azaroaren 23ko epaia²⁹ aipatu beharra dago. Zeinak, legegileei Espainian haurdunaldi subrogatuaren kontratua deusez bezala hartzeko arrazoi hauek eman zizkien bere bigarren oinarri juridikoan: *“vienen a coincidir con las razones que llevaron al legislador español a prohibir, conforme al Derecho actualmente vigente en España, el contrato de gestación subrogada o por sustitución; en concreto, se trata de los problemas que suscita esta figura en relación con principios tales como el que la persona humana no puede ser objeto del comercio de los hombres, o lo que es lo mismo, que el niño no puede ser objeto de transacción, así la propia dignidad de la persona. principios reflejados, además de en el artículo 10-1 de la Constitución, en su artículo 15, que reconoce el derecho a la integridad moral, el artículo 39-2 del la misma norma fundamental, que proclama que los poderes públicos aseguran la protección integral de los hijos y de las madres cualquiera que sea su estado civil, el artículo 1.271 del Código Civil, que prescribe que pueden ser objeto de contrato todas las cosas que no están fuera del comercio de los hombres y el artículo 1.275 del mismo cuerpo legal, que impide la producción de efectos a los contratos con causa ilícita.”*

2. Bide beretik, legez kontrakoa izatearen beste oinarri edo arrazoi bat, honako hau dela dioten autoreak daude³⁰: haurdunaldi subrogatua praktikatzea, adopzioaren legeztapenaren aurka joatea dela. Autore hauen planteamendua honakoa da: adopzioaren zain dauden horrenbeste haur

²⁹ Valentziako APE 2011.11.23 (ROJ APE 5738/2011).

³⁰ GARCÍA PÉREZ (2007: 375).

egonda, haur bat izateko horrelako teknikak erabiltzea, nolabait esateko, iruzur egitea dela. Izan ere, guraso izan nahi duten pertsonak, haur bat adoptatzea aukeratzen badute, bi alderdien nahia edo beharra asetzen dute: beraiena, haur baten guraso izaera eskuratzuz; eta, adopzioaren zain dagoen haurarena, guraso batzuk izatera pasatuz.

Bukatzeko, esan beharra dago, hasiera batean LUTL-ko 10. artikulua, soilik haurdunaldi subrogatuari bideratzeko kontratuak deusez bilakatzen dituela dirudien arren, ohikoa izaten dela horrelako akordioei loturiko beste zenbait hitzarmen ere, honekin batera, deusez bilakatzea. Hala nola, ugaltze materialaren dohaintzari buruzko kontratuak³¹.

1.2 ENZO-k emandako ebazpen eta instrukzioak: “Kaliforniako kasua”

Erregistro eta Notaritzako Zuzendaritza Orokorra (ENZO), justizia ministerioaren barruan dagoen departamentuetako bat da. Eta, azken boladan haurdunaldi subrogatuaren harira dagoen problematika, ENZO-k emaniko ebazpen zein instrukzio konkretu batzuei dago zuzenean lotuta. Hain zuzen ere, lan honetan azaldu den moduan, Espainiako legeen baitan, haurdunaldi subrogatuaren praktika, deuseza da bertan. Baina, legez kontrakoa den heinean, jendea beste bideren bat aurkitzen saiatzen da berau praktikan jartzeko. Hala, atzerrira joanez haurdunaldi subrogatua praktikatzera, ugaltze turismo delakoari ateak irekiz.

Honen aurrean sortzen den problematika oso anitza da. Baina, arazo garrantzitsuenetako bat honakoa da: haurdunaldi subrogatua atzerrian praktikatu dutenak, Espainiara haur jaio berriarekin etorri eta bertako EZ-an inskribatu nahi izatea.

Azken aldian asko ematen ari den fenomeno bat da honako hau eta kasuistika anitza dago aztertzeko. Baina, bada Espainian oihartzun handia sortu duen kasu bat, “Kaliforniako kasua” bezala ezagutzen dena. Hain zuzen ere, ENZO-ren erantzuna³² jaso duelako. Eta, nolabait, haurdunaldi subrogatua legeztatzearen eztabaidari berriro ere indarra eman diolako, zein, jurisprudentiaren aldetik erreboluzio bat sortu duelako.

Eskuarki, ENZO-k emandako ebazpen eta instrukzioa eman zirenean, berez kasu konkretu horri erantzuna emateko ziren arren, hauek, aurrerantzean, horrelako kasu guztien aurrean LUTL zalantzan jartzeko balio izan baitute. Eta baita, orain arte

³¹ GARCÍA PÉREZ (2007: 377).

³² HEREDIA CERVANTES irakaslearen iritzia (2013).

haurdunaldi subrogatuaren bitartez atzerrian jaiotako haurren inskripzioaren edota filiazioaren inguruan ulertu dena aldatzeko.

Bada, kasu honen nondik norakoa aztertuko da jarraian. Batez ere, ENZO-k emandako ebazpen eta instrukzioa aztertu eta LUTL-arekiko dagoen kontrakotasunak sortzen duen arazoa analizatzeko. **Kasua** honakoa da:

Valentziako bikote homosexual batek, bi haur izan zituen Kalifornian aurrera eramandako haurdunaldi subrogatuaren praktika baten bitartez. Eta, Kalifornian jaiotako eta gero, bikote horrek, haur horien inskripzio eskaera egin zuen Kalifornian kokatzen den Espainiako Erregistro Zibil Kontsularrean, horretarako, beharrezkoak ziren idazkiak aurkeztuz, Kaliforniako Erregistroko autoritate administratiboak igorritakoak. Horien artean, familia liburua. Zehazki, bikotea osatzen zuten bi gizonen seme-alaba gisa inskribatu nahi baitzituzten haurrak.

Aitzitik, familia liburua, ez zen Espainiako filiazioaren legeztapenarekiko osagarri. Eta ondorioz, EZ-ko arduradunak, bere erantzuna LUTL-ko 10. artikuluan oinarrituz, inskripzioari ezezkoa eman zion, **2008ko azaroaren 10eko Autoaren**³³ bitartez.

Auto horrek emandako ezezkoaren ondorioz, bikote homosexualak, ENZO-ren aurrean helegite bat ezartzea erabaki zuen, eskaera bera berriro ere gauzatu. Eta, **ENZO-k 2009ko otsailaren 18ko ebazpenean**³⁴, haur horien inskripzioa onartu zuen, LUTL zalantzan jarritz.

Ebazpena, honako arrazoi hauetan oinarritu zen, inskripzioa onartu ahal izateko:³⁵

1. Erregistro Zibileko Erregelamenduko 81. artikulua³⁶ dioenari jarraiki, atzerriko erregistroko-ziurtagiri bat egonik, ziurtagiriak pasa beharreko legezko kontrol guztiak pasata daude eta beraz, gatazka arauen aplikazioa ez da beharrezkoa kasu honetan.³⁷

³³ JIMÉNEZ MARTÍNEZ irakaslearen azterketa (2012).

³⁴ HEREDIA CERVANTES irakaslearen iritzia (2013).

³⁵ CAMARERO GONZÁLEZ (2012: 2).

³⁶ Erregistro Zibileko Erregelamenduko 81. artikulua honela dio: *“El documento auténtico, sea original o testimonio, sea judicial, administrativo o notarial, es título para inscribir el hecho de que da fe. También lo es el documento auténtico extranjero, con fuerza en España con arreglo a las leyes o a los Tratados internacionales.”*

³⁷“Asesoría & Empresa” gaurkotasan-atarian 2009ko otsailaren 18ko epaiari buruzko egindako azterketa: Hirugarren zuzenbide-oinarria.

2. Ez da kontsideratzen inskripzio horrek Espainiako ordena publikoa hausten duenik. Are gehiago, inskripzio honen bitartez haurraren interes gorenaren alde egiten dela kontsideratzen da, identitate bakarra izateko daukan eskubidea kontuan hartuz.

Gainera, bikote homosexualen aldeko filiazioaren inskripzioa onartzen da, gizonen kasuan, adopzioaren aurrean. Eta, baita emakumeen kasuan ere.

3. Azken arrazoia, haurren naziokotasunarekin lotuta egon zen. Hain zuzen ere, ENZO, KZ-ko 17.1. artikuluan³⁸ oinarritu zen. Honen ondorioz, haur horiek guraso espainiarrak izanik, naziokotasun espainiarra zutela adieraziz.

ENZO-k ebazpen hau eman eta gero ordea, prozesua ez zen horrela gelditu. Eta Ministerio Fiskalak, ebazpena errekurritu zuen, honen deuseztapena eskatuz, Valentziako Lehen Auzialdiko epaitegian. Hala, Valentziako lehen instantziako epaitegiak, **2010eko irailaren 15eko epaia**³⁹ eman zuelarik. Eta, honako hauek izan ziren ENZO-k 2009an emandako ebazpenaren aurka egiteko Ministerio Fiskalak eman zituen argudioak:

1. ENZO-k emandako ebazpenean, Erregistro Zibileko Erregelamenduko 81. artikulua aplikatu izana, Erregistro Zibileko Legeko 23. artikulua aplikatu beharrean. Hain zuzen ere, argi dago edozein lege, edozein erregelamendu baina lerrun handiagokoa dela, eta ondorioz, EZ-eko Legea dela aplikagarri eta ez EZ-eko Erregelamendua⁴⁰. Horri jarraiki, EZL-ko 23. artikulua, erregistroaren arduradunak, atzerritik datozen agiriak berriro ere aztertzeko betebeharra duela adierazten du. Hau da, legezketasun kontrola burutzeko betebeharra eta baita Espainiako legearekin bat datorrela ziurtatzekoa ere.

³⁸ KZ-ko 17.1. artikulua honela dio: *“1. Son españoles de origen: a) Los nacidos de padre o madre españoles. b) Los nacidos en España de padres extranjeros si, al menos, uno de ellos, hubiera nacido también en España. Se exceptúan los hijos de funcionario diplomático o consular acreditado en España. c) Los nacidos en España de padres extranjeros, si ambos carecieren de nacionalidad o si la legislación de ninguno de ellos atribuye al hijo una nacionalidad. d) Los nacidos en España cuya filiación no resulte determinada. A estos efectos, se presumen nacidos en territorio español los menores de edad cuyo primer lugar conocido de estancia sea territorio español.”*

³⁹ Valentziako LAEE 2010.09.15 (ROJ SJPI 25/2010).

⁴⁰ Hirugarren zuzenbide-oinarria; Valentziako LAEE 2010.09.15 (ROJ SJPI 25/2010).

2. ENZO-k emandako ebazpenean argudiatuiko adingabearen interes gorenari dagokionez, Espainiako ordenamenduak, berau lortzeko beharrezkoak diren baliabideak dituela adierazten du.
3. Kasu honetako interesatuak (Valentziako bikote homosexualak), atzerrira haurdunaldi subrogatuaren teknika praktikan jartzera joan zirenean, Espainian horrelako kontratuak deusezak zirela jakinda joan ziren. Eta beraz, haur horiek Espainian erregistratzea ezinezkoa izango zela jakinda. Hori hala, bikote horrek eskakizun hori egitea lege-iruzur kontsideratzen du.

Argudio hauek oinarri gisa hartuz, epaiak Ministerio Fiskalak ezarritako demanda onartzen du. Hala, aurretik gauzatutako haurren inskripzioa efekturik gabe utziz.

Epai honek, ordea, ez zuen prozesuaren amaiera ekarri. Izan ere, Valentziako bikoteak, Valentziako Lehen Auzialdiko epaitegiak 2010eko irailaren 15ean emandako epaiaren aurka apelazio helegite bat ezarri zuen. Ondorioz, auzia, Entzutegi Probintzialaren eskutan gelditu zelarik.

Hala, Valentziako Entzutegi Probintzialak, bere ezespene-epaia eman zuen **2011eko azaroaren 23an**⁴¹, aurrez, inskripzioa efekturik gabe utzi zuen epaiaren irizpide bera jarraituz eta deuseztasun erregistrala konfirmatuz. Esan beharra dago, ordea, Lehen Auzialdiko epaitegiaren irizpide bera jarraitu zuen arren, Entzutegi Probintzialak, ez zuela atzerriko ziurtagiriak erregistroan aintzatesteko metodoa baztertu. Horretarako argudio hau emanez: hauen ukapena, ordena publikoaren urrapenarekiko baldintzatuta egongo dela.

Auzitegiak atzerriko ziurtagiriak Espainiako EZ-an inskribatzea onartzearen edo ukatzearen inguruan zalantzak izaten jarraitzen zuen bitartean, ENZO-k, bere iritzia eman zuen berriro ere, **2010eko urriaren 5eko instrukzioaren**⁴² eskutik. Instrukzio honetan, ENZO-k, aurretik emandako ebazpenaren irizpidea aldatu zuen. Zehazki, haurdunaldi subrogatuaren bitartez jaiotako haurren inskripzioa onartuz, baldintza batekin: eskaera burutu duen interesatuetako batek behintzat, naziokotasun espainiarra izatea. Instrukzioak emandako oinarria, honakoa da:

⁴¹ Valentziako APE 2011.11.23 (ROJ APE 5738/2011).

⁴² ENZO-k emandako 2010eko urriaren 5eko instrukzioa. *BOE* 243. zk., 2010eko urriaren 7koa, 84803. *Orrialdea*.

Lagundutako Ugalketa Teknikei buruzko Legeko 10.3. artikulua; hain zuzen ere, artikulua honi jarraiki, aitatasuna erreklamatzeko posible da, horretara bideratuta dagoen akzioaren bitartez. Azken batean, instrukzio honen helburua, prozesuan, haurra zein emakume gestatzailea babestea baita: inskripzioen nondik norakoa erraztuz, haurren nazioarteko merkataritza eragozten saiaturaz etab. Eta jakina, babes hori ziurtatu ahal izateko, zenbait baldintza ezarri.

Prozesuak, aurrera jarraitzen zuten beraz, eta 2011ko azaroaren 23ko ezespene-epaiaren aurrean, Valentziako bikoteak kasazioko errekurtsioa ezarri zuten. Hala, 2014. urtean **Auzitegi Gorenak** erantzuna eman zion azken honi **2014ko otsailaren 6ko**⁴³ epaiaren bitartez. Zeina, berriro ere, ezespene-epaia izan zen. Eta, argudio nagusi gisa, honako hau eman zuten:

Erregistroa ziurtatzeko erabilitako atzerriko ziurtagiriak, Espainiako nazioarteko ordena publikoaren parte diren printzipio eta oinarriko eskubide askoren kontrakoak zirela. Eta beraz, ziurtagiri horiek, Espainiako EZ-an ezingo zirela inskribatu guraso komisio-emaielen filiazioa ziurtatzen zuten froga-dokumentu gisa.

Lehen Auzialdiko Epaitegiak eta Entzutegi Probintzialak ez bezala, Auzitegi Gorenak honakoa adierazi zuten: Espainiako araudiak EZL-ko 23. artikuluan jasotzen duenaren aurrean, atzerriko ziurtagiriaren onespeneak ez duela soilik LUTL-aren 10. artikuluan esaten dena kontuan hartzeari mugatu behar. Horretaz gain, gainera, inskripzioa ez onartzea, sexu arrazoiengatik izana ukatu zuten auzitegiak. Eta azkenik, haurren interes gorenari dagokionez, Auzitegi Gorenak, azken hau errespetatu dadin, legea bete behar dela esan zuten. Hau da, ezin dela legea urratu, kasuan egin nahi izan zen bezala.

Ezespene-epai honen aurrean, Valentziako bikoteak **deuseztasuneko intzidentea** ezarri zuten, honako arrazoi hauetan oinarrituz:

1. EK-ko 24. artikuluan jasotzen den benetako babes judizialaren eskubidearen haustura, proba arauen urratzeagatik, egitateen existentzia ez frogatzean.
2. Berdintasun eskubidearen haustura: haurrak jaiotza arrazoiengatik diskriminatzeagatik eta gurasoak orientazio sexualagatik diskriminatzeagatik.
3. Familia intimitate eskubidearen haustura, medikoki lagundutako tekniken bidez ugaltzeko eskubidearen hausturari lotuta.

⁴³ AGE 2014.02.06 (ROJ STS 247/2014).

Azken honen erantzun gisa, **Auzitegi Gorenak 2015eko otsailaren 2an emandako Autoa**⁴⁴ eman zuen, 2014ko otsailaren 6ko epaiak esandakoa berretsiz, eta deuseztasun erregistrala baieztatuz, honako arrazoi hauekin:

1. Benetako babes judizialaren hausturari buruz, Auzitegi Gorenak, azken hau alegatzea ezinezkoa dela irizten du. Izan ere, demandatzaileek, prozesu guztian zehar onartu dituzten egitateen existentzia ez frogatzea alegatzen dutela uste du. Demandatzaileak kontrakotasun batean erortzen ari direla, alegia.
2. Berdintasun eskubidearen hausturari dagokionez, Auzitegi Gorenak ez du berau eman dela onartzen. Hain zuzen ere, honen aburuz, demandatzaileen sexualitatea ez da inongo momentua eztabaidagai izan.
3. Familia intimitatearen eskubidearen hausturari dagokionez, Auzitegi Gorenak, eskubide honek zenbait muga dituela irizten du. Ez dela mugagabea, alegia. Eta beraz, haurdunaldi subrogatua Espainian onartzen ez den teknika bat izanik, auzitegiak, ezin duela teknika honen bitartez jaiotako haurren inskripzioa onartu.

Behin Espainia mailan oihartzuna sortu duen jurisprudentzia kasuaren nondik norakoa aztertu ostean, komenigarria da **Europako Giza Eskubideen Auzitegia** jarrera aztertzea. Hain zuzen ere, nahiz eta ez duen Espainian jazotako kasuaren inguruan adierazpenik egin, Europa mailan, “Kaliforniako kasuaren” egitate antzekoekin emandako hiru epai hauek kontuan izan beharrekoak dira:

1. Europako Giza Eskubideen Auzitegiak emaniko 2014ko ekainaren 26ko “*Menesson vs. Frantzia*” kasuaren ingurukoa.⁴⁵
2. Europako Giza Eskubideen Auzitegiak emaniko 2014ko ekainaren 26ko “*Labasse vs. Frantzia*” kasuaren ingurukoa.⁴⁶
3. Europako Giza Eskubideen Auzitegiak emaniko 2015eko urtarrilaren 27ko “*Paradiso et Campanelli vs. Italia*” kasuaren ingurukoa.

Hiru kasu hauetan, errekurtoa ezarri zutenek, Giza Eskubideen Europako Hitzarmeneko 8. artikulua urratu zuten, berau urratuz, haurraren interes gorena kaltetzen zela adieraziz. Artikulu honek, honela dio: “*toda persona tiene*

⁴⁴ AGA 2015.02.02 (ROJ ATS 335/2015).

⁴⁵ DURÁN AYAGO irakaslearen iritzia (2014).

⁴⁶ DURÁN AYAGO irakaslearen iritzia (2014).

derecho al respeto de su vida privada y familiar, de su domicilio y de su correspondencia”.

Honen aurrean, “bizitza pribatuaren” eta “bizi familiarraren” arteko bereizketa bat egin beharra dago.⁴⁷ Lehenengoak, haurdunaldi subrogatuaren bitartez jaiotako “haurren identitateari” egiten baitio erreferentzia. Eta, bigarrenak, “familia arrunt bat bezala bizi ahal izateko eskubideari”.

“*Labasse eta Menesson*” kasuan, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak, honakoa kontsideratu zuen: bizi familiarraren eskubidea ez zela urratua izan. Aldiz, bizitza pribatuaren eskubidea bai. Urratua izan zela, eta beraz, Giza Eskubideen Europako Hitzarmeneko 8. artikulua baita ere.

“*Campanelli*” kasuan, gurasoak (komisio-emaileak) eta haurra Italiara itzuli zirenean, haurdunaldi subrogatuaren teknikaren bitartez jaiotako haurra, gurasoengandik banandua izan zen. Hala, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren ustez, bizitza familiarerako eskubidea urratuz. Eta ondorioz, Giza Eskubideen Europako Hitzarmeneko 8. artikulua.

Guzti hau aztertu ostean, argi geratzen da, haurdunaldi subrogatuaren bitartez jaiotako haurren inskripzioaren kasuak sakonago eta banaka aztertu beharko liratekeela. Izan ere, **Auzitegi Gorenak 2015eko otsailaren 2an emandako Autoan**⁴⁸ Giza Eskubideen Europako Auzitegiak dioena, analogikoki, lurralde espainiarrean ez dela aplikatu behar kontsideratzen da. Hau da, Frantziako eta Espainiako kasuaren arteko ezberdintasunak, oso nabarmenak direla. Hain zuzen ere, Auzitegi Gorenak, ez baitu kontsideratzen “Kaliforniako kasuan”, Giza Eskubideen Europako Hitzarmeneko 8. artikulua urrapenik ematen denik.

Ondorioz, beraz, azken Auto horrek, kasu bakoitza banaka eta zehaztasun osoz aztertzeko beharra nabarmendu duela esan daiteke. Izan ere, argi geratu baita, lege-oinarri antzekoak dituzten bi kasuak (Frantziako eta Espainiako adibidez), epaitza oso ezberdina izan dezaketela.

2. Beste herrialdeetako legeztapenaren azterketa eta konparaketa

Aurrez esan denez, haurdunaldi subrogatuaren legeztapenaren egoera, ez da berdina estatu guztietan. Izan ere, aniztasun handia dagoela esan daiteke. Eta, sailkapen bat egite aldera, lau multzo nagusi egin daitezke:


⁴⁷ CALVO CARAVACA eta CARRASCOSA GONZÁLEZ (2015: 99-101).

⁴⁸ AGA 2015.02.02 (ROJ ATS 335/2015).

1. Haurdunaldi subrogatua praktikatzea onartzen duten estatuak (trukean kontraprestazioen bat izanda edo izan gabe)
2. Haurdunaldi subrogatuaren praktika, soilik kontraprestaziorik gabe onartzen duten estatuak
3. Haurdunaldi subrogatuaren praktika edota berau bideratzeko kontratua debekatzen duten estatuak
4. Haurdunaldi subrogatuaren praktika arautzen ez duten estatuak. Azken hauei dagokienez, esan beharra dago, legeztatuta ez egoteak dakarren segurtasun gabezia juridikoak, praktikan, haurdunaldi subrogatua aurrera eramatea dakarrela. Eta, horrek , abusuak eta injustiziak sortarazten dituela, tamalez.

Jarraian, herrialde ezberdinetan haurdunaldi subrogatuaren legeztapenari dagokionez dagoen egoera, modu zehatzago batean ikus daiteke:

EUROPAKO ESTATU BATZUETAKO EGOERA:



EUROPATIK KANPOKO ESTATU BATZUEN EGOERA: (aurreko mapan erabili diren koloreak erabiliz).

ESTATUAK	EGOERA
Errusia	X
Australia	X
India	X
Mexiko: Sinaloa	X
AEB-ko estatu gehienak	X
Kanada	X
AEB: Virginia	X
Brasil	X
Mexiko: Tabasko	X
AEB: Michigan	X

Jarraian, aurrez aipaturiko estatuen artean, haurdunaldi subrogatua **debekatzen** duten estatuetako batzuen egoera orokorra:

ESTATUAK	LEGEZTAPENA	SANTZIOA	OHARRAK
ESPAINIA	LUTL 10 KP 220 KP 221	KP 220 → 6h - 2 urte bitarteko espetxe zigorra (aurrerantzean "e.z.")). KP 221 → 1-5 urte e.z + tutoretza, kuratoretza, guraso eskubideak kentzea 4-10 urte.	Ordezko haurdunaldiaren kontratua nulu kontsideratzen da
ALEMANIA	1990eko abenduaren 13ko legea, enbrioiaren babeserako egina Adopzioaren legea	1990eko legea → Askatasunez gabetzen duen 3 urterainoko zigorra + isuna. Adopzioaren legea → urte 1 e.z./ isuna.	Erantzukizuna mediku +bitartekari (ez:guraso izango direnena edo emakume gestatzailearena)
FRANTZIA	1994ko uztailearen 29ko 94-653.legea → KZ 16-7. atala ezarri KP 227-12/13 KP 511-24	KP 227-12 → 1 urteko e.z. + 15000 eurora arteko isuna. KP 227-13 → 3 urteko e.z. +45000 eurora arteko isuna. KP 511-24 → 5 urteko e.z. + 75000 €-ra arteko isuna.	Frantziak Europako Giza Eskubideen Auzitegiaren aldetik kondena jaso du "Menesson y Labasse" kasu ezagunaren harira
ITALIA	2004ko otsailaren 19ko 40.legeko 12.6.artikulua	600000 – 1 milioi isuna + 3h-3 urte e.z.	
PORTUGAL	Ekainak 26ko 2006/32 legeko 8.artikulua → kontratua nulua da	Kostu bidezko kontratua/ kontratua egin dela aldarrikatu (2 urte e.z. + 240 egun isuna).	Portugaleko Kode Zibileko araua jarraituko du → Ama → erditzen duen emakumea da

Eta, azkenik, haurdunaldi subrogatua, kontraprestazioarekin edota gabe **onartzen** den estatuetaiko batzuk aztertuko dira jarraian:

ESTATUAK	BALDINTZAK	LEGEZTAPENA
UKRAINIA (Kontraprestazioa onartzen da)	Komisio-emaileak ezkondata: Komisio-emaile: soilik bikote heterosexualak → frogatu ezin dutela guraso izan biologikoki Bietako baten material genetikoa Gestatzailea: adinagusia, erabaki autonomia, osasuntsua...	Familia kodea 123.2 KZ 281 (7)
EEBB	“ <i>Parental order</i> ”-a behar da (baldintza batzuk jasotzen ditu: arrazoi medikoak) Oinarrizko gastuak ordaindu daitezke	“Surrogacy Arrangements Act”(1985) “Adoption and Children Act”(2002) “Human Fertilisation and Embryology Regulations”(2010);
GREZIA	Emakume gestatzaile eta komisio-emaileak → ohiko-egoitza Grezian Komisio-emaileak, haurdunaldia aurrera eramateko ezgai dela frogatu behar du Oinarrizko gastuak ordaintzen dira	3089/2002 Legeko 1458.artikulua 3305/2005 Legea

IV. ERLAZIO JURIDIKOAK ETA INTERESAK

Orain arte, haurdunaldi subrogatuaren nondik norakoak aztertu ditu lan honek. Haurdunaldi subrogatuaren fenomenoak, haurdunaldi subrogatuaren esanahia, kontratua, legeztapena, estatu ezberdinetako legeztapenen arteko konparaketa, etab. Baina, haurdunaldi subrogatuak sortzen duen problematikaren barruan, prozesuaren parte diren alderdi ezberdinak eta euren interesak aztertzea da elementu nagusia ikuspegi juridikotik. Hala, balorazio bat egin ostean, aurrean daukagun arazo juridikoari, prozesuko parte guztientzat onuragarria den erantzun bat ematen saiatzeko.

1. Jaioko den haurraren guraso izan nahi dutenen interesa

Horiei komisioko-emaile deitzen zaie, haurdunaldi subrogatuaren praktikako alderdi “kontratatzailerik” izanagatik, hau da, teknika hau bideratzeko kontratuan guraso izateko helburuarekin parte hartzeagatik.

Jarraian aztertuko den moduan, haurdunaldi subrogatuaren prozesuan parte hartzen duten gainontzeko alderdien eskubide eta interesak, modu ezberdinetan interpreta daitezke, haurdunaldi subrogatua Espainian legezztatzea edo ez legezztatzea defendatzeko. Baina, komisioko-emaileen kasuan, besteekin ez bezala, eskubide konstituzional, printzipio eta baloreen interpretazioa, ez da subjektibotasunean erortzen. Hau da, ez dira haurdunaldi subrogatuaren aurka edo alde egiteko erabiltzen. Hain zuzen ere, alderdi horrek daukan interesa, bakarra da: haurdunaldi subrogatua Espainian legezkoa izatea, praktika hau baldintza egoki batzuetan gauzatu ahal izateko eta segurtasuna bermatu ahal izateko.

Eta, komisioko-emaile edo jaioko den haurraren guraso izango direnek (pertsonek bakarra ere izan daitezke) daukaten interes hau, gehien bat, “giza ugalketarako eskubidean” zentratzen dela esan daitezke.

Ildo honetatik, gizartearen bilakaeraren eta aurrerapenen baitan, Espainiako legeek “giza ugalketarako eskubidea” jasotzea izango litzateke egokiena.⁴⁹ Baina, beraz, bere horretan, ez dago inongo legetan aurreikusia. Eta, ondorioz, eskubide hau, beste zenbait eskubidetan islatzen dela esan daitezke.⁵⁰ Zehazki, erregulazio falta honen ondorioz, zenbait balore, printzipio eta eskubide konstituzionalen edukia sakonkiago aztertu behar baita.

⁴⁹ GÓMEZ SÁNCHEZ (1994: 40).

⁵⁰ GÓMEZ SÁNCHEZ (1994: 40- 41).

Beraz, “giza ugalketarako eskubideak” haurdunaldi subrogatuaren teknika erabili ahal izatea dakarrela kontsideratuz, komisio-emaielen interesen aldarrian sartzen da baita ere, hauen askatasun⁵¹, segurtasun⁵², duintasun eta garapen askea izatearen eskubidea⁵³. Zeinak, jarraian sakonduko diren.

Hain zuzen ere, Espainiar estatuko hiritarrak, demokrazia batean bizi garen honetan, **askatasun eskubidea**⁵⁴ dugu. Eta, askatasunaren interpretazioak, gainontzeko eskubide eta printzipioak hausten ez baditu behintzat, ez du inongo mugarik izan behar⁵⁵. Hori dela eta, pertsona orok izan behar du ugalketarako eskubidea. Eta azken hau, gizartearen bilakaeraren ondorioz, zabaldu egin dela esan daiteke, nolabait. Edota, modu tradizionaleraino gain, ugalketarako modu berriak ere existitzen direla. Zeinak, gizabanakoak duen askatasun eskubidearen baitan, Espainian erabiltzeko aukera, legezkoa izan beharko den. Zuzenbidearen lana, gizartearen bilakaerarekin bat, arauak sortzea baita.

Gainera, pertsona orok du **garapen askea izateko eskubidea** eta baita **duintasun eskubidea** ere. Eta, eskubide hauek, norberak bere askatasuna autonomiaz kudeatzearekin dute lotura zuzena. Eta nolabait, botere publikoek, gizabanakoen

⁵¹ Askatasun eskubidea Espainiako Konstituzioan jasotzen da, 1.1. eta 17.1. artikuluetan: 1.1. “*España se constituye en un Estado social y democrático de Derecho, que propugna como valores superiores de su ordenamiento jurídico la libertad, la justicia, la igualdad y el pluralismo político.*”

17.1. “*Toda persona tiene derecho a la libertad y a la seguridad. Nadie puede ser privado de su libertad, sino con la observancia de lo establecido en este artículo y en los casos y en la forma previstos en la ley.*”

⁵² Segurtasun eskubidea Espainiako Konstituzioan jasotzen da, 17.1. artikuluan: “*Toda persona tiene derecho a la libertad y a la seguridad. Nadie puede ser privado de su libertad, sino con la observancia de lo establecido en este artículo y en los casos y en la forma previstos en la ley.*”

⁵³ Eskubide hauek Espainiako Konstituzioan jasotzen dira, 10.1. artikuluan: “*La dignidad de la persona, los derechos inviolables que le son inherentes, el libre desarrollo de la personalidad, el respeto a la ley y a los derechos de los demás son fundamento del orden político y de la paz social.*”

⁵⁴ AKE 1991.04.08 (ROJ AKE 1991\68). Askatasun eskubideari dagokionez, epai honek dioena interesgarria suertatzen da: “*(...)principio de igualdad se ha derivado, en la tradición constitucional europea, un derecho de los ciudadanos a la igualdad ante la Ley, es decir, un derecho a que ésta sea aplicada a todos por igual, sin acepción de personas, o lo que es lo mismo, sin tener en cuenta otros criterios de diferenciación, entre las personas o entre las situaciones, que los contenidos en la misma Ley. Por eso, como tantas veces se ha repetido, el principio de igualdad se identificaba en la práctica con el de legalidad, puesto que cualquier aplicación desigualitaria de la Ley era una violación de la Ley misma. Sólo al término de una evolución secular y ya en nuestro siglo, se ha derivado del principio de igualdad también un derecho frente al legislador (o más generalmente, frente al autor de la norma) cuyas decisiones pueden así ser anuladas por la jurisdicción competente cuando establezcan distinciones basadas en criterios específicamente prohibidos (raza, sexo, etc.), o que no guarden una razonable conexión con la finalidad propia de la norma. Este nuevo significado del principio de igualdad no implica, sin embargo, la eliminación del anterior; no lo sustituye, sino que lo amplía, extendiendo el deber que de él dimana a todos los poderes del Estado y no sólo a los encargados de aplicar las normas.*”

⁵⁵ GÓMEZ SÁNCHEZ (1994: 40, 42)

askatasuna bultzatzeko beharrezko neurriak hartzearekin.⁵⁶ Hor sartzen da, hain zuzen ere, zuzenbidea: garapen soziologikoaren harira, beharrezkoa dena erregulatzean. Haurdunaldi subrogatuaren kasuan, praktika legezkoa izango balitz, pertsona orok, praktika hau erabiltzeko edo ez erabiltzeko askatasuna izango lukeelarik.

Ildo beretik, **berdintasun eskubidea** aipatzea, ezinbestekoa da. Zeina, EK-ko 1.1. artikuluan balore goren bezala jasotzeaz gain, EK-ko 14. artikuluan⁵⁷ ere barnebiltzen den, besteak beste. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak, printzipio honen inguruan zera dio: “*se considera el principio de igualdad como carente de carácter autónomo y de existencia independiente y como complemento de las demás disposiciones normativas del Convenio*”. Honen harira esan daitekeelarik, berdintasun printzipioa, “giza ugalketarako eskubideak” barnebiltzen dituen balore eta eskubide guztiak interpretatzeko oinarritzat hartu behar dela.⁵⁸

Zehazki, berdintasun printzipioari loturik egiten dute euren interesen alde, haurdunaldi subrogatuaren praktikaren bitartez guraso izan nahi dutenek. Praktika hau aurrera eramatean berme juridikoa izatea lortu nahi baitute. Hala, teknika honen praktika legez onartuz gero, erabili nahi dutenen eta nahi ez dutenen arteko berdintasuna lortuko litzatekeela irizten baitute.

Hari honetan, esan beharra dago, bi gizonez osaturiko bikote homosexuali dagokienez, haurdunaldi subrogatua Espainian legezkotzat hartzea, euren eskubideak indartzeko modu bat izango litzatekeela irizten duenik badagoela⁵⁹. Izan ere, haurdunaldi subrogatua ondorengoak izateko daukaten modu bakarretako bat dela kontsidera daiteke, adopzioarekin batera. Azken hau, askotan eraginkorra ez dela izaten kontuan izanik.

Azken honi loturik, Bizkaiko egoera azaltzea interesgarria da. Eskuarki, Bizkaian, ondasunen eraentzeari dagokionez, foru-komunikazioaren sistema da aplikagarri. Eta, berau sendotzearen inguruan, Euskal Zuzenbideari buruzko 5/2015 Legeko 132.1. artikuluan honakoa adierazten da: “*La comunicación foral, que nace con el matrimonio, se consolida en el momento de su disolución por fallecimiento de uno de los cónyuges*

⁵⁶ GÓMEZ SÁNCHEZ (1994: 46)

⁵⁷ Espainiako Konstituzioko 14. artikuluan berdintasun printzipioa jasotzen da: “*Los españoles son iguales ante la ley, sin que pueda prevalecer discriminación alguna por razón de nacimiento, raza, sexo, religión, opinión o cualquier otra condición o circunstancia personal o social.*”

⁵⁸ GÓMEZ SÁNCHEZ (1994: 68).

⁵⁹ VARA GONZÁLEZ notarioaren iritzia (2015).

dejando hijos o descendientes comunes.” Beraz, ondorengoak izatea, ondasunen eraentzea aplikagarri izateko behar bat dela argi ikus daiteke.

Bukatzeko, aipatzekoa da Giza Eskubideen Europako Hitzarmeneko 8. artikuluari jarraiki⁶⁰, pertsona orok bizi familiar eta pribatu bat izateko eskubidea duela. Eta hori ere, haurdunaldi subrogatuaren praktikaren bitartez guraso izateko nahia dutenek, defendatzen dute. Eskuarki, SERRANO ALBERCA letratuaren hitzetan⁶¹, intimitate eskubidearen baitan, gizabanakoen bizitza pribatuan, erabakiak norberak hartu behar baititu, botere publikoek eta gainontzeko pertsonak jar ditzaketen mugak galaraziz. Interpretazio honi jarraiki, zera ulertu daitekeelarik: haurdunaldi subrogatua Espainian legeztatzen ez bada, praktika honen bitartez haur bat izateko nahia duten pertsonak bizitza familiar zein pribatua izateko duten eskubidea urratzen dela. Nahi duten teknika edo modua erabiliz guraso izateko nahia, alegia.

2. Gestatzailearena

Gestatzailearen interes zein eskubideei dagokienez, gestatzaile izan daitezkeen eta izan nahi dutenen artean profil ezberdin asko daudela kontuan izan behar da. Pentsaera, bizimodu, kultura, eta abarren arabera, aniztasun handia sortzen dela, alegia. Horren ondorioz, haurdunaldi subrogatua Espainian legezko bihurtzearen alde zein kontra dagoenik aurkitu daiteke gestatzaileen artean. Eta, horietako bakoitzak, bere interesak eta eskubideak, bere iritzian oinarrituz defendatzen ditu.

Haurdunaldi subrogatua Espainian **legezkoa izatea egokiena** izango litzatekeela uste duten emakume gestatzaileek, honako argudio hauek dituzte euren jarrera defendatu ahal izateko:

1. EK-ko 10.1. artikulua⁶² barnebiltzen duenari jarraiki, pertsona orok du bere nortasuna libreki garatzeko eskubidea. Eta bide batez, azken honen baitan, pertsona orok, “ugaltzeko autonomia izateko eskubidea”⁶³ duela

⁶⁰ Giza eskubideen Europako Hitzarmena (Convenio Europeo de Derechos Humanos, 1979. BOE 243. zk., 1979ko urriaren 10ekoa).

⁶¹ SERRANO ALBERCA (1985: 353): “*El derecho a la intimidad limita la intervención de otras personas o de los poderes públicos en la vida privada de los individuos.*”

⁶² Espainiako Konstituzioko 10.1. artikulua honela dio: “*La dignidad de la persona, los derechos inviolables que le son inherentes, el libre desarrollo de la personalidad, el respeto a la ley y a los derechos de los demás son fundamento del orden político y de la paz social.*”

⁶³ <http://www.cienciaspenales.net/files/2016/07/3sentencia-c-133-de-1994-aborto.pdf>. Nahiz eta epai hau abortuari buruzkoa den, ateratako konklusioak, haurdunaldi subrogaturako ere balio dute. Honakoa adierazten da zehazki: “*la mujer embarazada goza de un derecho constitucional a la autonomía procreativa. El estado debe proteger este derecho y tomar las medidas necesarias para que sea efectivo, brindando apoyo a la mujer que desee procrear (...)*”

esan daiteke. Horri jarraiki, emakume orok nahi duen moduan joka dezakeela defendatzen dute. Eta, haurdunaldi subrogatuaren alderdi gestatzailea izateko nahia duten emakumeek, praktika honetan parte hartzeko aukera izan beharko luketela.

2. Ildo beretik, haurdunaldi subrogatua Espainian legeztatzearen alde dauden emakume gestatzaileek, emakumeei aukeratzeko eskubidea kentzea, historian zehar, beste behin, emakumeen hitza zapaltzea izango litzatekeela adierazi izan dute. Hala, emakumea babestetik urrun, dauden estereotipoak nabarmentzea besterik lortzen ez delako euren aburuz.⁶⁴
3. Gainera, haurdunaldi subrogatua Espainian legezkoa izatea, emakumearen gorputza nolabait “merkantilizatzea” izango litzatekeela uste dutenen aurrean, legezko bihurtzearen alde daudenek, emakumearen segurtasuna ziurtatzeko modu bat dela diote. Zeinaren bitartez, haurdunaldi subrogatua beti modu seguru batean praktikatzea lortuko litzatekeen. Hain zuzen ere, haurdunaldi subrogatuko gestatzaileari diru kopuru bat ordaintzeak, berme gisa balio duela irizten baitute, osasun babes egoki bat emate aldera.⁶⁵
4. Honen harira, haurdunaldi subrogatuaren praktika, organoen dohaintzarenarekin parekatzen dute zenbaitek. Organoen dohaintza kasuetan, 1979/30 legeko 4.c. artikuluari jarraiki, dohaintza emaileak, bere kontsentimendua eman dezake, autonomia osoz. Haurdunaldi subrogatuan, ordea, zergatik ez? Gizabanakoaren askatasunaren urrapen argi baten aurrean gaudela diote.
5. Azkenik, Espainian haurdunaldi subrogatua legezko bihurtzarekin, ugaltze turismoa desagertzearen alde egingo litzatekeela ere badiote. Bide batez, praktika honen bitartez sortzen diren desoreken kontra eginez, nolabait.⁶⁶

Aitzitik, haurdunaldi subrogatua Espainian **legezkoa ez izatea egokiena** dela irizten dutenek, honako argudio hauek ematen dituzte:

⁶⁴ FARNÓS AMORÓS (2010: 6).

⁶⁵ MUÑOZ kazetariaren iritzia (2017).

⁶⁶ GIMENO politikariaren iritzia (2017): “*Las mujeres que gestan para otras no podrían mañana (en caso de quedarse estériles, por ejemplo) pagar por un hijo, de la misma manera que jamás veremos a una rica gestar para otra por precio. Simplemente nadie lo hace si no tiene la imperiosa necesidad de hacerlo. Donde se reconoce el derecho de las ricas a comprar se está obligando a las pobres a vender.*”

1. Jakin badakigu, lan honetan, pertsonaren eremuan mugitzen ari garela. Eta beraz, pertsonen eskubide txit pertsonalen bueltan. Hori hala, eta arau zibilei jarraiki, gorputzeko atalak, ezin dira komertzio edota merkatuaren eremuarekin nahastu eta ezta, komertziorako objektu izan. Ondorioz, haurdunaldi subrogatuaren praktika legezko izango balitz, arau zibilen urrapena emango litzateke, emakumearen merkantilizazioa bultzatuz, gainera.⁶⁷
2. Hori gutxi balitz, haurdunaldi subrogatua legezkoa izatea, jende dirudunaren eta ez hain dirudunaren arteko desorekak areagotzeko bide izango litzatekeela diote.⁶⁸
3. Ildo beretik, haurdunaldi subrogatua legezko bihurtzea emakumearen zaugarritasun eta ahultasunarekin jolasteko modu bat dela diote. Hain zuzen ere, edonork, behar ekonomiko baten aurrean, haurdunaldi subrogatuko gestatzaile izatera joko lukeela irizten baitute, berez horretarako gogorik izan gabe. Eta bide batez, modu honetan, emakumearen erabakiak ez lukeela autonomiarik izango.
4. Laburbilduz beraz, haurdunaldi subrogatua legezko izanda, emakumearen duintasuna urratuko litzatekeela uste dute, esplotazioa bultzatuz.

3. Haurraren interesa eta babesia

Haurdunaldi subrogatuaren bitartez jaiotzen den haurrak, prozesu honen alderdi den heinean, aztertu berri diren beste bi alderdiek bezalaxe, zenbait eskubide edota interes dituela argi dago. Are gehiago, haurra, prozesuko gainontzeko alderdiak baino garrantzitsuagoa dela esan daiteke. Hau da, haurra heldua ez izanagatik, bere interes eta eskubideak ez direla garrantzia gutxiagokoak. Baizik eta, prozesuko protagonista nagusia izan behar duela.

Eskuarki, prozesuko alderdien interes eta eskubideak aztertze aldera, hauen arteko haztapen bat egitea da helburu nagusia. Eta, haurraren kasuan, bere **interes gorena** izan behar da kontuan. Baina, azken hau, printzipio zehaztugabea da eta ondorioz, interpretazio eta iritzien aurrean atek zabalik uzten ditu. Berau, aurrerago

⁶⁷ LAMM (2012: 5).

⁶⁸ LAMM (2012: 22).

aztertua izango da. Zeren eta, printzipio honetaz gain, artikulua hauek diotena ere, garrantzitsua baita haztaper honetarako:

1. Giza Eskubideen Europako Hitzarmeneko 8. artikuluan⁶⁹ adierazten denari jarraiki, pertsona orok du bizitza pribatu zein familiar bat izateko eskubidea. Eta, haurra prozesuko alderdi den heinean, bere bizitza pribatu zein familiarra babesteko beharrezkoak diren neurriak hartu behar dira, bere interesak defendatze aldera.
2. Espainiako Konstituzioko 10. artikuluan, pertsona ororen nortasunaren garapena eta duintasun eskubidea, oinarrizko eskubide bezala jasotzen dira. Honi jarraiki, beraz, haurdunaldi subrogatuaren teknikaren bitartez jaioko den haurrari, bere nortasuna, berarentzako modu egoki eta positiboenean garatzen lagundu beharko zaio, bere duintasuna errespetatuz.
3. EK-ko 15. artikuluan jasotzen denaren arabera, pertsona orok du osotasun fisikorako eskubidea. Aurrekoen bide beretik beraz, teknika honen bitartez jaioko den haurraren osotasun fisikoa errespetatu beharko da.
4. EK-ko 17. artikuluan esaten denari jarraiki, pertsona orok du segurtasunerako eskubidea. Artikulu honi so, haurdunaldi subrogatuaren teknikaren ondorioz jaiotzen den haur ororen segurtasuna bermatu beharko da beti.
5. EK-ko 39. artikuluko lehenengo eta bigarren azpiataletan, botere publikoek familia babesteko betebeharra dutela adierazten da, haurren babesa ziurtatuz. Ondorioz beraz, haurdunaldi subrogatuaren teknikaren bitartez sortutako familiei ere, euren babesa ziurtatu beharko zaie.

Azaldu denez, haurdunaldi subrogatua haurraren interes gorena hartu behar da kontuan. Eta, kontzeptu juridiko zehaztugabe⁷⁰ baten aurrean gaudenez, horrek interpretazio ezberdinak egoteari ematen dio bide. Azken hau, positiboa eta negatiboa da aldi berean. Negatiboa, interpretazio subjektiboak egotea ahalbidetzen duelako. Eta, positiboa, KZ-ko 3.1. artikuluan jasotzen denari jarraiki, kontzeptu juridiko zehaztugabe bat izanik, inguruabarrak kontuan izanda interpretatu behar delako. Kasu honetan, gaur

⁶⁹ Giza eskubideen Europako Hitzarmena (Convenio Europeo de Derechos Humanos, 1979. *BOE* 243. zk., 1979ko urriaren 10ekoa).

⁷⁰ RAVETLLAT BALLESTÉ (2012: 89-108) (PDF-an 92).

egungo familiaren kontzeptuaren bilakaera ere kontuan izaten eta azken honen zentzu zabalenari lekua uzten.

Kontzeptuaren zehaztugabetasun horren baitan, bada Espainian haurdunaldi subrogatua legez kontrakoa izatea haurraren interes gorenaren aldekoa dela esaten duenik. Eta baita, legez kontrakoa izatea, haurraren interes gorenaren aurkakoa den heinean, haurdunaldi subrogatua Espainian legez onartu egin beharko litzatekeela irizten duenik ere.

Zehazki, Espainian haurdunaldi subrogatua legez kontrakoa izateak, **haurraren interes gorenaren alde** egiten duela adierazten dutenek⁷¹, zera diote:

1. Lehenik eta behin, teknika honen praktikaren bitartez, haurdunaldiaren prozesuan, emakume gestatzailearen eta jaioko den haurraren artean sortzen den seme-alabatasun lotura hausteak, haurraren interes gorena kaltetzen duela⁷².
2. Bigarrenik, horrelako praktiken bitartez jaiotako haurrek gizartean integratzeko arazoak izaten dituztela eta jasotzen duten heziketa ere kaltetua suertatzen dela, guzti horrek interes gorena kaltetuz. Honen barruan sartzen delarik, haurra adin nagusi bihurtzen denean, bere jatorrizko ama ezagutzeko duen eskubidea⁷³. Hain zuzen ere, azken honen baitan, haurra kaltetu baitaiteke, berak daukan familia-nukleoaren alterazioak sor dakizkioken arazo psikologikoengatik.
3. Hirugarrenik, haurdunaldi subrogatuak “negozio” izaera hartzen duen heinean, haurraren interes gorena erabat kaltetzen dela.
4. Eta, azkenik, haurraren identitatea kaltetzen dela eta ondorioz bere interes gorena.

Aldiz, Espainian haurdunaldi subrogatua legez kontrakoa izatea **haurraren interes gorenaren aurkakoa** dela irizten dutenek, honako argudio hauek dituzte, besteak beste:

⁷¹ LAMM (2012: 6-7).

⁷² AKE 2013.11.04 (ROJ AKE 2013\186) Ildo honetan, epai honek “bizitza familiar” bat izateko eskubidearen inguruan esaten dena kontuan hartuz, lotura egin daiteke. Honela baitio epaiak: “*La jurisprudencia del Tribunal Europeo de Derechos Humanos, en contraste con la de este Tribunal, ha deducido de aquel precepto un "derecho a la vida familiar", que comprendería como uno de sus elementos fundamentales el disfrute por padres e hijos de su mutua compañía (STEDH caso Johansen , de 27 de junio de 1996, § 52)*”.

⁷³ EK-ko 39.2. artikulua honela dio: “*2. Los poderes públicos aseguran, asimismo, la protección integral de los hijos, iguales éstos ante la ley con independencia de su filiación, y de las madres, cualquiera que sea su estado civil. La ley posibilitará la investigación de la paternidad.*”

1. Haurdunaldi subrogatua legezkoa ez izateak, jendeak aurrez aipatutako ugaltze-turismora jotzea ekartzen du maiz. Eta, horren harira, atzerrian teknika honen bitartez sorturiko haurrak, gerora Espainian inskribatu nahi izateko beharra sortzen da askotan. Prozesu guzti honen baitan haurrak jasaten duen “identitaterik ez izatearen” egoerarekin, haurrak bizitza pribatua izateko duen eskubidea eta bide batez, haurraren interes gorena kaltetu egiten dela irizten dute teknika hau Espainian legezkoa izatearen defendatzaileek.⁷⁴
2. Bide beretik, horrelako kasu baten aurrean haurraren inskripzioa onartzen ez bada, haurra jaiotza arrazoiengatik diskriminatzen dela⁷⁵ kontsideratzen dute. Eta, beraz, berdintasun printzipioaren haustura argia ematen dela.
3. Gainera, haurdunaldi subrogatua legezkoa ez den heinean, ugaltze turismora jotzeak haurraren segurtasuna kaltetzen duela irizten dute.⁷⁶ Zeina, EK-ko 17. artikulua babespean errespetatu egin beharko litzatekeen. Eskuarki, haurdunaldiaren prozesuaren jarraipenaren egokitasuna zalantza dela irizten baitute.

Ikusienez, kontzeptu juridiko zehaztugabea izateak, interpretazio ezberdinak egotea dakar eta bide batez, haurraren interesak zein diren baloratzerakoan, iritzi ezberdinak egotea. Haurraren interesak errespetatu eta mantentze aldera, ordea, iritziak iritzi, goran azaldutako eskubide guztiak kontuan izatea beharrezkoa da. Eta, Espainian haurdunaldi subrogatuaren kontratua deuseza dela kontuan izanda, ez litzateke batere justua izango legeztapen horrek haurraren interes gorena kaltetzea. Finean, organo administratiboen betebeharra baita, haurraren interesak jasotzen dituen legeztapen bat gauzatzea.

⁷⁴“Noticias jurídicas”-en erredakzioaren iritzia (2014).

⁷⁵ AKE 2010.04.27 (ROJ AKE 2010\9). Azken hau, jurisprudentzia kasu honekin parekatu daiteke. Zeinak, seme-alaba adoptiboak eta seme-alaba legitimoak bereizten dituen, berdintasun printzipioa hautsiz. Honela dio epaiak: “(...) *de modo tal que, tanto en una como otra fecha, la expresión «hijos legítimos» no comprendería a los hijos adoptivos, las recurrentes consideran que (...) Pues bien, al mantener que los hijos adoptivos no pueden ser considerados hijos legítimos, la Sentencia impugnada habría creado una discriminación por razón de nacimiento no justificada de manera objetiva y razonable, que no sólo habría vulnerado el art. 14 CE (...)*”.

⁷⁶ LAMM (2012: 12).

V. IRITZIAK ETA ARGUDIOAK: ALDE ETA KONTRA

Lan guztian zehar azaldu denez, haurdunaldi subrogatuaren fenomeno oso gatazkatsua da, eta halakoxea den heinean, iritzi ezberdinak sortzea berezko ondorioa da. Beraz, bai doktrinaren aldetik eta baita gizarteko gainontzeko kolektiboen aldetik ere, haurdunaldi subrogatuaren aldeko zein kontrako iritziak bereiz daitezke:

1. Haurdunaldi subrogatua legezko bihurtzearen alde

Haurdunaldi subrogatua Espainian legezkoa izatearen alde daudenek, honako argudio hauek ematen dituzte, besteak beste:

1. Lehenik eta behin, haurdunaldi subrogatua legezkoa ez den bitartean, teknika hau erabiltzeko nahia dutenek ugaltze-turismora joko dutela adierazi dute. Horren harira, gizarteko jendearen arteko desoreka gehiago sortu edota dauden desorekak areagotuko direlarik. Eta, hori gutxi balitz, gainera, emakume horien eta jaioko diren haurren segurtasuna ez delarik batere egokia izango.⁷⁷ Laburbilduz beraz, legezkoa ez izatearekin praktika gutxitzea lortu nahi den arren, kontrako efektua emango dela adierazi dute. Hau da, haurdunaldi subrogatua atzerrian praktikatzan jarraituko dela eta horrek efektu negatiboak sortuko dituela espainiarrentzat.
2. Bigarrenik, haurdunaldi subrogatua erabiltzearen fenomeno, egungo gizartearen bilakaeraren ondoriozko zerbait dela argudiatzen dute praktika hau legezko bilakatzearen aldekoek. Zehazki, ALZATE MONROY abokatuak honela dio: *“debemos asumir estos cambios sociales y generacionales tan profundos que se están dando en el panorama jurídico de este siglo, en torno a las nuevas formas de familia y de parentesco”*.⁷⁸

Hain zuzen ere, hasieran azaldutakoari jarraiki, gizartea erreboluzio baten protagonista izaten ari da eta zuzenbidearen bilakaerak ere, erreboluzio horren tamainakoa izan behar du, gutxienez.

Ildo honetan, honela mintzo da LAMM irakaslea: *“Todo lo hasta aquí analizado pone de manifiesto la necesidad de regulación de la GS en España. (...) en el sentido en que necesariamente deberá tomar en cuenta que la gestación por sustitución se está llevando a cabo, especialmente en el*

⁷⁷ VILAR GONZÁLEZ (2014: 904).

⁷⁸ BURGO DEL komunikatzailearen iritzia (2009).

*extranjero, no pudiendo obviar esta realidad ni conferir respuestas diferentes para los casos locales”.*⁷⁹

3. Hirugarrenik, haurdunaldi subrogatua emakume gestatzailea zein haurra erabili eta explotatzeko modu bat izango litzatekeela diotenen aurrean, norberak bere erabakiak hartzeko askatasuna izan behar duela adierazi dute. Bestalde, botere harremanak, beti existitu izan dira, ez bakarrik haurdunaldi subrogatuaren kasuan.
4. Laugarren argudio gisa, haurdunaldi subrogatua Espainian legezko bihurtzearen aurka daudenek, teknika hau erabili beharrean, adopziora jotzeko aukera dagoela argudiatzen dutela jakinik, MUJKA berri-emaile eta idazleak honakoa adierazi du:⁸⁰ adopziora jotzea beti ez dela erraza izaten. Sarritan, adopzio kasuak ez baitira egokitzen zuk buruan daukazun ideiarra; eta, gainera, tramiteek, arazo ugari ematen dituzte.
5. Bosgarrenez eta azkenik, haurdunaldi subrogatuaren bitartez izandako haurrak, emakume gestatzaitetik banantzean, emakume hori zein haurra kaltetzen direla esaten dutenen aurrean, horrelako kasu batean gestatzaile izandako emakume batek honela erantzuten du:⁸¹ *“ En el momento del nacimiento tuve muchas sensaciones debido a la explosión de hormonas, pero ninguna relacionada con el más mínimo deseo de retener ese bebé para mí. Su verdadera madre estuvo presente en el parto, esperándole con ansiedad y con ojos de amor... y cuando lo cogió en sus brazos, yo lo ví como si hubiera nacido de ella. Para mí no supuso ningún conflicto físico, emocional ni legal. Yo no soy la madre de ese bebé y nunca me he considerado tal, estaba mentalizada de que simplemente era su portadora.”*

Guzti honen aurrean, esan beharra dago, haurdunaldi subrogatua Espainian legezko bihurtzearen aldekoek, kasu gehienetan, zenbait baldintza jarri nahi izaten dituztela. Hau da, teknika hau legezko bihurtzekotan, baldintza batzuen pean izatea eskatzen dutela. Besteak beste, emakume gestatzaileak bere burua, gestatzaile izateko, borondate

⁷⁹ LAMM (2013: 101).

⁸⁰ MUJKA idazlearen eta BARRENA psikopedagogaren iritzia (2017).

⁸¹ MUÑOZ kazetariaren iritzia (2017) .

osoaz aurkezten duela ziurtatzeko⁸²; edota, teknika hau erabiltzeko aukera publikoa izan ahal izateko: pribatutasunetik elikatzen baita kapitalismoa.

2. Haurdunaldi subrogatua legezko bihurtzearen kontra⁸³

Haurdunaldi subrogatua Espainian legezkoa bihurtzearen aurkakoen argudiaketaren funtsa, aurrez idatzitako esaldian dagoela esan daiteke. Izan ere, postura edo iritzi honen defendatzaileek, teknika honen praktikak emakume gestatzailearen explotazioa eta merkantilizazioa dakarrela irizten baitute. Edota, beste modu batean esanda, haurdunaldi subrogatua, patriarkaltasun garaikidearen ondorioz sorturiko kontratu sexual bat dela. Alegia, beharra duten emakumeek eskaintzen dutela euren burua gestatzaile bezala soilik. Eta, beharrik ez dutenek, ez dutela halakorik egiten.

BARRENAREN (maistra eta psikopedagoga euskaltzalearen) ustez,⁸⁴ gizarte patriarkalaren beste aurpegi bat da haurdunaldi subrogatua. Zehazki, beste explotazio modu bat, behar ekonomikoa dutenen eta ez dutenen artean desoreka handiagoak egotea dakarrena eta beraz, berdintasunaren haustura bultzatzen duena, beste behin.

Bide beretik, MUJIKAK (berri-emaile eta idazleak)⁸⁵ zalantzan jartzen du haurdunaldi subrogatura jotzeko dagoen beharra. Bere aburuz, egungo gizartean, jendartea kapitalismo posesibo baten barne baitago. Eta, “norberak bere umea izateko nahi” hori, neurtu beharreko zerbait da. Zeren eta, zer gertatzen da adoptatuak izateko beharra duten haurrekin? Bere ustez, adopzioa erabili beharko litzateke haurdunaldi subrogatua erabili aurretik.

VARELA⁸⁶ eta AGUILAR⁸⁷ feministak ere, ildo beretik mintzo dira. Euren aburuz, haurdunaldi subrogatuak, munduan dauden desorekak areagotzen ditu eta gauza guztiak “erosi ahal izatea” dakar horrek. Emakume gestatzailearen gorputza merkantilizatzea, alegia. Gainera, euren ustez guraso izatea, ez da eskubide bat. Baizik eta, desio bat. Eta, ezberdintasun hau, nabarmendu beharrekoa dela uste dute. Hain zuzen ere, eskubidea,

⁸² BELTRÁN Murtziako eskualdeko PSOE-ko kide eta psikologoaren iritzia (2017): “*Y en la legislación que quiero, ninguna mujer podrá ser gestante para otros sin acreditar que tiene una posición socioeconómica desahogada, amén de tener hijos propios y vivos. Es decir, no quiero que mujeres pobres participen de este proceso, precisamente para preservar la integridad de las mismas.*”

⁸³ “*Ninguna mujer puede llamarse a sí misma libre cuando no tiene el control sobre su propio cuerpo*”- Margaret SANGER feminista estatubatuarra esana.

⁸⁴ MUJIKAK idazlearen eta BARRENA psikopedagogaren iritzia (2017).

⁸⁵ MUJIKAK idazlearen eta BARRENA psikopedagogaren iritzia (2017).

⁸⁶ VARELA kazetari eta feminista erradikalaren iritzia (2017).

⁸⁷ AGUILAR feminista eta hispaniar filologiako ikaslearen iritzia, (2017).

norberak bizi-kalitate on bat izatearena dela diote. Hau da, bizitza duin bat izatearena. Eta, hori da, hain zuzen ere, adopzioaren zain dauden hurrei ukatzen zaiena, euren iritziz. Hori horrela, hurdunaldi subrogatua alde batera utzi eta guraso izateko desioa duen orok, hurrak adoptatu behar dituela uste dutelarik.

Finean, hurdunaldi subrogatua Espainian legezkoa izanda, teknika hau erabiliz guraso izan nahi dutenek aginduko luketela uste dute. Eskuarki, praktika hau legezko bihurtzearen alde daudenek egiten duten “emakume gestatzailearen askatasunaren” aldarrikapena faltsua dela. Zeren eta, “norberak nahi duena egin dezala” esaldiaren benetako esanahia, honakoa dela uste baitute: “pribilegiadunek nahi dutena egin dezatela, aukeratzeko eskubidea ez dutenen egoeraz aprobeztatuz”.⁸⁸

⁸⁸ “BARBIJAPUTA” izen ezkuturen azpian mintzo den idazle eta feminista espainiarra (2017).

VI. ONDORIOAK ETA SOLUZIOAREN PLANTEAMENDUA: NIRE IRITZIA

Denbora luzez haurdunaldi subrogatuaren gaia lantzen egon eta gero, iritzi ezberdinetako jendearekin izan ditut gai honi buruzko elkarrizketak, doktrinak gai honen inguruan idatzitakoa irakurri dut, legeen arloan sortzen den problematika aztertu dut eta iritzi artikulua zein bideo, prentsa eta abarrek gai honen inguruan adierazitakoa ere analizatzen saiatu naiz.

Lan honen hasieran azaldutakoaren harira, egungo gizartea, bilakaera garrantzitsu baten protagonista izaten ari dela esan beharra dago. Eta, iritziak iritzi, legeztapenak, bilakaera horren isla izan beharko lukeela uste dut. Gizartearen bilakaerak, segurtasun eta ziurtasun juridikoa lortu ahal izateko, atzetik zuzenbidea egotea beharrezkoa dela, alegia.

Aitzitik, nire ustez, argi dago gizartea oraindik ez dagoela prest haurdunaldi subrogatua bezalako teknikei harrera ona emateko. Posible al da, gizartearen gehiengoa amatasunaren kontzeptu tradizionalan harrapatuta geratu izana?

Ez dut uste hala denik. Baina, bai, haurdunaldi subrogatua bezalako teknika batek norberari sortzen dizkion eztabaida moralak alboratzeko joera duela gizabanakoak. Teknika hau erabili beharrean, bestelako aukerak bilatzen saiatuz konponbide moduan.

Doktrinaren zati batek argudiatzen duen gisan, egia da, sarritan, adopzioaren alternatiba daukagula ahazten zaigula edo ahaztu nahi izaten dugula. Aurkako alderdian dagoen doktrinaren zatiak, ordea, adopzio prozesuen mantsotasuna salatzen du; eta, hori gutxi balitz, askotan, ez dela adopzioa burutzea lortzen.

Nire ustez, adopzioa, haurdunaldi subrogatuaren aurretik planteatu edo kontutan hartu beharreko aukera bat da. Baina, horretarako, Espainiako legegileek adopzioaren tramiteak azkartzea eta hobetzea izango litzateke egokiena, ene aburuz. Hala, adopzioaren egoera hobetzea lortuko litzateke, guraso izateko nahia dutenei aukera emango litzateke guraso izateko eta bide batez, guraso batzuen beharra duten haurrei, gurasoak izateko aukera.

Irtenbide egoki bat asmatzea, ez da lan erraza. Hori argi dago. Baina, Espainian dagoen egoerak, soluzio bat behar duela ezin da zalantzan jarri. Zeren eta, haurdunaldi subrogatua debekatuta dagoen arren, jendeak praktika hau erabiltzera jotzen jarraitzen

du, eskuarki, ugaltze-turismora. Eta, beraz, Espainian legezkoa ez izateak ez du teknika honen praktika gutxiagotzen, ezta gutxiago ere: kontrako efektua sortzen du. Zehazki, teknika hau atzerrian ematea eta gerora haur horiek Espainian inskribatzeko arazoak sortzea.

Horregatik, hain zuzen ere, problematika honentzako soluzio baten beharrezkotasuna argia da. Eta egokiena, kasu bakoitzaren aurrean, arazo konkretu horretara egokitutako irtenbide bat ematea izango litzatekeela uste dut. Baina, horrek duen zailtasunaz kontziente, Espainian haurdunaldi subrogatuari buruz dagoen legeztapena berritzea proposatzen dut: Lagundutako Ugaltze Teknikei buruzko maiatzaren 26ko 14/2006 Legeko 10. artikulua aldatzea edota honen ordezeko artikulua berri bat sortzea.

Legeztapen berri honetan, lehenik eta behin, ugaltze turismoaren fenomenoaren desagertzeko neurriren bat hartu beharko litzatekeela uste dut. Hau da, nolabait ere, debekatu egin beharko litzatekeela. Izan ere, fenomeno honek jendearen artean sortzen dituen desorekak, ene aburuz Espainiako estatuko legegileen erantzukizun dira.

Honi jarraiki, Espainian, botere publikoek kontrolaturiko prozesu legal bat ezartzea proposatzen dut. Zeinak, haurdunaldi subrogatuan parte hartzen duten alderdi guztien interes eta eskubideak ziurtatzeaz gain, hauen segurtasuna bermatzeko ere balio duen. Eta, horretaz gain, horrelako praktiketara sarbidea izan nahi duten hiritar guztiei aukera ematen dien. Hala, gizarteko desoreka eta ezberdintasunak ezabatze aldera lan eginez.

Egin berri dudana proposamenaren utopikotasunaren jakitun, berau zehazten hastea aproposa izango litzateke beharbada.

Haurdunaldi subrogatua onartzekotan, baldintza batzuen pean onartzea beharrezkoa dela uste dut, parte hartzen duten alderdi guztien eskubide eta interesak bermatze aldera:

1. Gestatzailareari dagokionez, bere kontsentimendua benetakoa eta guztiz autonomo eta librea dela ziurtatu beharko litzateke, hasteko. Ondoren, praktika honetan parte hartzearen arrazoia, ekonomikoki behar bat izatea ez dela ziurtatu beharko litzateke. Hau da, gestatzaileak egoera ekonomiko egonkor bat duela. Eta honetaz gain, prozesuan, segurtasuna izango lukeela bermatu beharko da. Guzti hau, beharrezkoak diren egiaztatgiriaren bitartez egin beharko litzatekeelarik.

2. Haurren aldetik, prozesuan segurtasuna emango zaiola bermatzeaz gain, jaio eta gero, nahi izango balu, bere jatorri biologikoa zein den jakiteko eta berau ezagutzeko aukera eman beharko litzaioke.
3. Eta, azkenik, komisio-emaleei dagokienez, emakume gestatzaileak haurdunaldiaren prozesuan beharrezko dituen laguntza guztiak eskura izango dituela ziurtatu beharko dute, lehenik eta behin. Eta, gerora, haurra behar den moduan zaintzeko gai izango direla. Horretaz gain, emakume gestatzailearen edota haurren nahia hori bada, beraien artean kontaktua mantentzeaz arduratuko direla ziurtatu beharko dutelarik.

Behin lege proposamenak izango lituzkeen baldintzak azaldu eta gero, orain arte eman den kasuistikaren aurrean, ENZO-k emandako ebazpen eta instrukzioek, sorturiko eztabaida aipatu beharra daukat. Hain zuzen ere, bi hauek, Lagundutako Ugalketa Tekniken legerari “hankaz gora jarri” zutela esan baitaiteke.

Nire ustez, ENZO-k, lege “atzerakoia” aurrean, Espainian ugaltze turismoaren ondorioz, haurren inskripzioekin sortzen zen problematikari erantzuna emateko beharra sumatu zuen. Finean, legeztapena gizartearen bilakaeraren eskutik joatekoa, nolabait.

Eta, horri loturik doa, hain zuzen ere, nire proposamenaren bigarren zatia: zehazki, haurdunaldi subrogatuaren problematika konpontzen duen lege bat sortu bitartean, teknika honen bitartez atzerrian jaiotako haurrak Espainian inskribatzeko aukera eman beharko litzatekeela uste dut, baldintza batzuekin. Izan ere, teknika hau, (i)legaltasunaren hesian dantzan ari da uneoro. Eta, ez da justua eztabaida soziologiko-politikoak sortzen duen ezjakintasunaren ordaintzaile haur horiek izatea. Zeren eta, haur horiek, errurik ba al dute? Ez. Ez dute inongo errurik eta askotan, ezjakintasun horren ondorioz, administrazioaren eskutan eror daitezke, horretarako beharrik egon gabe.

Laburbilduz beraz, soluzio baten beharra dagoela uste dut, argi eta garbi. Hau da, Espainiako legeek, gizartearen bilakaerarekin bat joan beharko luketela. Eta, ez dutela iraganeko familia moldeetan harrapatuta geratu behar. Urteak aurrera doazen heinean sortzen diren aldaketak onartu behar dira eta aldaketa hauek gizabanako ororentzat ahalik eta justuenak izan daitezen, egungo garaietara egokituriko erantzunak aurkitu behar dira.

BIBLIOGRAFIA

- CALVO CARAVACA, Alfonso, eta CARRASCOSA GONZÁLEZ, Javier (2015): “Gestación por sustitución y Derecho internacional privado. Más allá del Tribuna Supremo y del Tribunal Europeo de Derechos Humanos”, *Cuadernos de Derecho transnacional*, 7. liburukia, 2. zenbakia, 45-113. orrialdeak.
- CAMARERO GONZÁLEZ, Gonzalo J. (2012): “Notas sobre la resolución de la Dirección General de los Registros y del Notariado de 18 de febrero de 2009, en un caso de gestación por sustitución”, *Diario La Ley*, 7910. zenbakia, Tribuna sekzioa.
- COLEMAN, Piers (1982): “Surrogate motherhood: analysis of the problems and suggestions for solutions”, *Tennessee Law Review*.
- DURÁN AYAGO, Antonia (2014): “Sentencias del Tribunal Europeo de Derechos Humanos, caso Mennesson c. France (n.º 65192/11) y caso Labassee c. France (n.º 65941/11), de 26 de junio de 2014”, *Ars Iuris Salmanticensis (Universidad de Salamanca)*, 2. liburukia, 2014ko abendua, 277-282. orrialdeak.
- FARNÓS AMORÓS, Esther (2010): “Inscripción en España de la filiación derivada del acceso a la maternidad subrogada en California. Cuestiones que plantea la Resolución de la DGRN de 18 de febrero de 2009”, *Indret: Revista para el Análisis del Derecho*, 1/2010.
- GARCÍA PÉREZ, Carmen Leonor (2007): *Comentarios a la Ley 14/2006, de 26 de Mayo, sobre técnicas de reproducción humana asistida*, Zizur Txikia, Thomson-Aranzadi.
- GÓMEZ SÁNCHEZ, Yolanda (1994) *El derecho a la reproducción humana*, Madril, Marcial Pons.
- GONZÁLES PÉREZ DE CASTRO, Maricela (2013): *La verdad biológica en la determinación de la filiación*, Madril, Dykinson.
- HEREDIA CERVANTES, Iván (2013): “La Dirección General de los Registros y del Notariado ante la gestación pos sustitución”, *Anuario de Derecho Civil*, 66. liburukia, 11. faszikulua, 687-716. orrialdeak.
- JIMÉNEZ MARTÍNEZ, María Victoria (2012): “La inscripción de la filiación derivada de la gestación por sustitución. Problemas actuales”, *Anuario de la Facultad de Derecho (Universidad de Alcalá)*, 5. zenbakia, 365-381. orrialdeak.
- JIMÉNEZ MUÑOZ, Francisco Javier (2014): “Denegación de la inscripción de la filiación determinada por la celebración de un contrato de gestación por sustitución. Comentario a la STS 835/2013, de 6 de febrero de 2014 (RJ 2014,736)”, *Revista Boliviana de Derecho*, 18. zenbakia, 400-419. orrialdeak.

- LAMM, Eleonora (2012): “Gestación por sustitución; Realidad y Derecho”, *Indret: Revista para el Análisis del Derecho*, 3/2012.
- LAMM, Eleonora (2013): *Gestación por sustitución: ni maternidad subrogada ni alquiler de vientres*, Bartzelona. Publicacions i Edicions de la Universitat de Barcelona.
- RAVETLLAT BALLESTÉ, Isaac (2012): “El interés superior del niño: concepto y delimitación del término”, *Revista Educatio Siglo XXI*, 30. liburukia, 2. zenbakia, 89-108. orrialdeak.
- ROCA TRÍAS, Encarnación (homenajeado), VÁZQUEZ ALBERT, Daniel (dir.) (2014): *El derecho de familia y los nuevos modelos de familia. Novedades doctrinales y jurisprudencia*, Bartzelona. Zizur Txikia, Aranzadi/Revista Jurídica de Cataluña.
- RODRIGUEZ-YONG, Camilo A., MARTÍNEZ-MUÑOZ, Karol Ximena (2012): “El contrato de maternidad subrogada: la experiencia estadounidense”. *Revista de Derecho* (Valdivia, Txile), XXV. liburukia, 2. zenbakia, 59-81. orrialdeak.
- SERRANO ALBERCA, José Manuel (1985): *Comentarios a la Constitución: artículo 18*, Madril, Civitas.
- VARA GONZÁLEZ, Jose Manuel (2015): “¿Existe el derecho a ser padre en solitario?”, *El notario del siglo XXI*, 2015eko urria, 63. zenbakia.
- VELA SÁNCHEZ, Antonio José (2012): *La maternidad subrogada: estudio ante un reto normativo*, Granada, Editorial Comares.
- VILAR GONZÁLEZ, Silvia (2014): “Situación actual de la gestación por sustitución”, *Revista de Derecho UNED*, 14. zenbakia, 897-931. orrialdeak.
- WARNOCK, Mary (1986): “A question of life: The Warnock report on human fertilisation & embryology”, *Analytic Philosophy*, (Malden, AEB), 27. liburukia, 238-241. Orrialdeak.

JURISPRUDENTZIA

- AGE 2014.02.06 (ROJ STS 247/2014).
- AGA 2015.02.02 (ROJ ATS 335/2015).
- AKE 1991.04.08 (ROJ AKE 1991\68).
- AKE 2010.04.27 (ROJ AKE 2010\9).
- AKE 2013.11.04 (ROJ AKE 2013\186).

Valentziako LAEE 2010.09.15 (ROJ SJPI 25/2010).

Valentziako APE 2011.11.23 (ROJ APE 5738/2011).

ENZO emandako 2010eko urriaren 5eko instrukzioa. *BOE 243. zk., 2010eko urriaren 7koa, 84803. orrialdea.*

LEGEDIA

Convenio Europeo de Derechos Humanos, 1979. *BOE 243. zk., 1979ko urriaren 10ekoa.*

Carta de los Derechos Fundamentales de la Unión Europea, 2010. *BOE 83. zk., 2010eko martxoaren 30ekoa.*

Kode Zibila, 1889ko uztailaren 24ko Errege Dekretua. *Gaceta de Madrid 206. zk., 1889ko uztailaren 25a.*

Espainiako Konstituzioa, 1978. *BOE 311.zk., 1978ko abenduaren 29a.*

Lagundutako Ugaltze Teknikei buruzko 14/2006 Legea, maiatzaren 26koa. *BOE 126. zk., 2006ko maiatzaren 27a.*

Erregistro Zibilari buruzko 20/2011 Legea, uztailaren 21ekoa. *BOE 175.zk., 2011ko uztailaren 22a.*

Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko 5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa. *BOE 176. zk., 2015eko uztailaren 24a.*

Erregistro Zibileko Legearen Erregelamendua onartzen duen Dekretua, 1958ko azaroaren 14koa. *BOE 296. zk., 1958ko abenduaren 11a.*

PRENTSA ETA IRITZIA

BURGO, Myriam del (2009): “Madres de alquiler, ¿el fin justifica los medios?”, <https://sites.google.com/site/maternidadsubrogada/Home/prensa/madres-de-alquiler-el-fin-justifica-los-medios>, *La tribuna del Derecho* egunkaria, 2017ko martxoaren 8an kontsultatua.

BAYARRI MARTÍ, Maria Luisa (2015): “Maternidad por subrogación. Su reconocimiento en España”, noticias.juridicas.com/conocimiento/articulos-doctrinales/10338-maternidad-

por-subrogacion-su-reconocimiento-en-espana/, *Noticias Jurídicas* web-orria, 2017ko otsailaren 20ean kontsultatua.

CAMARERO, Ismael (2016): “El polémico laberinto legal de los vientres de alquiler”, www.elmundo.es/papel/historias/2016/12/13/584ed04146163fa7258b4611.html, *El mundo* egunkaria, 2017ko maiatzaren 16ean kontsultatua.

GALÁN, Lola (2016): “Las palabras y su reputación”, elpais.com/elpais/2016/12/02/opinion/1480707534_933313.html, *El país* egunkaria, 2017ko martxoaren 6ean kontsultatua.

TORRICO, Oscar (2016): “Se llama “gestación subrogada”, no “vientre de alquiler”.”, www.elperiodico.com/es/entre-todos/participacion/llama-gestacion-subrogada-vientre-alquiler-58314, *El periódico* egunkaria, 2017ko martxoaren 15ean kontsultatua.

AGUILAR, Macarena (2017): “Vientres de alquiler, una ley del capitalismo”, www.tribunafeminista.org/2017/02/vientres-de-alquiler-una-ley-del-capitalismo/, *Tribuna Feminista* komunikabide digitala, 2017ko apirilaren 7an kontsultatua.

BARBIJAPUTA (izen ezkutua) (2017): “*Sobre los vientres de alquiler (o en neolengua, gestación subrogada)*”, www.eldiario.es/zonacritica/liberalismo-vientres_de_alquiler-gestacion_subrogada-maternidad_barbijaputa_6_624397573.html, *Eldiario.es* komunikabide digitala, 2017ko apirilaren 7an kontsultatua.

BELTRÁN, Mariano (2017): “Argumentos de un socialista a favor de la maternidad subrogada”, www.huffingtonpost.es/mariano-beltran/argumentos-de-un-socialis_b_14773740.html, *Huffingtonpost* komunikabide digitala, 2017ko otsailaren 20an kontsultatua.

GIMENO, Beatriz (2017): “Mercado de vientres”, elpais.com/elpais/2017/02/13/opinion/1487011358_053416.html, *El país* egunkaria, 2017ko apirilaren 5ean kontsultatua.

MUJICA, Amagoia, eta BARRENA, Marisa (2017): “Haurdunaldi subrogatua legeztatu ala ez?”, info7.naiz.eus/eu/info_i7/20170405/haurdunaldi-subrogatua-legeztatu-ala-ez, *Naiz* komunikabide digitala, 2017ko apirilaren 6ean kontsultatua.

MUÑOZ, Ana (2017): “Cuando tuve un bebé para otra mujer”, www.vidandantes.es/tuve-bebe-otra-mujer-gestacion-subrogada/, *Vidandantes* web-orria, 2017ko otsailaren 17an kontsultatua.

“*NOTICIAS JURÍDICAS*”-en erredakzioa (2014): “Los hijos nacidos de vientre de alquiler no pueden ser inscritos en el Registro Civil español”, noticias.juridicas.com/actualidad/noticias/3533-los-hijos-nacidos-de-vientre-de-alquiler-no-pueden-ser-inscritos-en-el-registro-civil-espanol/, *Noticias Jurídicas* web-orria, 2017ko otsailaren 7an kontsultatua.

VARELA, Irantzu (2017): “El tornillo 5x23 maternidad subrogada”, https://www.youtube.com/watch?v=R0wMSv3bz_U&feature=youtu.be, *Youtube* web-orrian, 2017ko apirilaren 9an kontsultatua.

WEB-ORRIAK

www.babygest.es/

www.gestacionsubrogadaenespaña.es/

www.asesoriayempresas.es/

www.cienciaspenales.net/files/2016/07/3sentencia-c-133-de-1994-aborto.pdf, zientzia penalen inguruko atari iberoamerikarra. Abortoari buruzko epai baten azterketa.